ASTELEHENEKO
# Goienkaria

2008ko urtarrilaren 14a > Astelehena > IV. urtea > 173. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokaren aurkako epaia da"
**Iñigo Elkoro**
Abokatua > 06



**G2a** **Paint-ballean jolasean, Bedoña auzoan** > 23

**OÑATI**
**Parrokian eraberritu gabeko horma konpontzen hasi dira** > 04

**KIROLA**
**UDAk eta Mondrak irabazi, eta Aloñak azken minutuan galdu** > 16

**KULTURA**
**'Historia zinemaren bidez' jardunaldiak Arrasaten** > 05

**GIZARTEA** > GORPUEN ERRAUSKETA

# Hildakoak errausteko joera, goraka Debagoienean ere

**DEBAGOIENA** Errauskailu bakarra dago ibarrean; Arrasateko San Kristobal hilerrian dago

**ARRASATE** 2006an hildakoen %65,29 erraustu zituzten; Oñatin 10 hildako baino ez dituzte errausten, batez beste

**ERRAUTSAK** Kutxa txikietan sartu eta gorde edo toki esanguratsuetan zabaltzen dituzte senideek > 02-03

## Gabiria dorrea berritu dute erakundeek eta Tavex lantegiak

XV. mendeko Gabiria dorrea berritu dute erakundeen eta Tavex Algodonera lantegiaren artean. Lanak 2006ko uztailean hasi zitutzen eta 1,6 milioi euroko aurrekontua izan dute. Eraikina Udalarena bada ere, Tavex Algodonerak erabiliko du eraikina datozen 30 urteotan. Eguneean ekitaldi xumea egingo dute erakundeetako eta Tavexeko ordezkariek lanen amaiera ospatzeko. > 05



**GABIRIA DORREA** XV. mendekoa da Bergarako Gabiria dorrea eta monumentu izendapena du. JOSETXO ARANTZABAL

**ETXEBIZITZA** > ALOKAIRUA

## Emantzipazio errenta gazteentzat

Dirulaguntzak jasotzeko eskaerak, eskuragarri daude dagoeneko > 04

**LANA** > INEMEN DATUAK

## 1.812 langabe gurean

INEMek emandako datuen arabera, Debagoienean 1.812 langabe zeuden joan den abenduan, %5,85 hain justu ere. Urte bukaeran langabe kopururik handiena zuen herria Aretxabaleta genuen, %7,03 kopuruarekin. 2007. urtean zehar zazpi hilabetetan egon zen langabezia tasa %5aren gainean. > 05

**KIROLA** > ESKUBALOIA

## Derbia, Bergararen alde

Ozta-ozta irabazi zion Bergarak Ford Mugarriri (27-26) > 15

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Elkarrizketa** > 06
**Iritzia** > 07-08
**Herriak** > 09-14
**Kirola** > 15-22
**Kultura** > 23-27
**Sailkatuak** > 28
**Irrati-Telebista eta Hitzorduak** > 29
**Berri-zakua** > 30-31
**Azkena** > 32

**HEZKUNTZA** > IKASTAROA BERGARAN

## Umeen kantuak eta jolasak ikasiz, haurtzarora bueltа

Umeen kantuak, jolasak eta ipuinak ikasten 15 lagun ari dira Bergaran zapatutik. Udaleko Euskara batzordeak antolatu du ikastaroa, helburu bikoitzarekin: umeekin euskaraz jolasteko tresnak eskaintzea gurasoei eta aldi berean, kalitatezkoa izatea haurrekin ematen dugun denbora. Behin baino gehiagotan antolatu izan dituzte honelako ikastaroak ibarrean. Joan den azaroan beste ikastaro bat egin zuten Oñatin. Orduan bezala, Ana Carpintero da ikastaroko irakaslea.

Bergaran zazpi saio egingo dituzte otsailaren bukaera bitartean. Zapatuko saioan ondo baino hobeto pasatu zuten gurasoek eta hezitzaileek. > 09



Argazkian, ikastaroko partaideak kantuan, zapatuko saioan. EDU MENDIBIL

**GIZARTEA** > GORPUEN ERRAUSKETA

# EAEn hiltzen direnen ia erdiak erraustu egiten dituzte

**ERRAUSKAILUA** Ibarrean errauskailu bakarra dago; Arrasateko hilerrian dago eta publikoa da

**ARRAZOIAK** Merkeagoa eta garbiagoa izateaz gain, arrazoi kulturalengatik eta lekua aurrezteko hautatzen da erraustea

**ERRAUTSAK** Kutxa txikietan gorde ostean, kanposantuan zein etxean gorde edo zabaldu egiten dituzte senideek



**LABEA** Arrasateko kanposantuan errauskailu publikoa dago 2002az geroztik; urtetik urtera gora egin du bertan erraustutakoen kopuruak. ARTXIBOA

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Gizona hutsetik sortzen eta hautsetan amaitzen dela dio esaerak, baina gurean hildakoak erraustearen kontua gauza berria da. Berria bada ere, ibarreko herri batzuetan batik bat gora egin duen joera da.

EAEn iaz batez beste hildakoen %44 erraustu zuten: %32,5 Araban, %51 Bizkaian eta %36,7 Gipuzkoan. Gure ibarreko datuei erreparatuta, kontuan hartuta erraustegi bakarra Arrasaten dagoela, 2006an hildakoen %65,29 erraustu zutela ikus genezake. 2002tik gainera, errausketen kopuruaren joera gorakoa izan da etengabe; %42,23 izan baitziren 2002an. Bergaran ere oso altua da erraustutakoen kopurua, batez beste %50ekoa.

Beste herri batzuetan, ordea, ez dute sumatu hainbesteko igoerarik. Oñatin, esaterako, urtean batez beste 10 hildako baino ez dituzte errausten. Horren arrazoia azaldu digu Moyua ehorztetxeko Migel Angel Moyuak: "Herrien eta kanposantuen araberakoa da. Oñatin, adibidez, kopuruak mantendu egiten dira. Izan ere, nahikoa toki dago eta familia gehienek panteoia edo horma-hobia erosia dute. 2.000tik gora nitxo dago eta badago tokia gehiago egiteko ere. Beste leku batzuetan, Bergaran eta Arrasaten kasurako toki gutxiago dago. Hala ere, urtea hasi besterik ez da egin eta Oñatin bi gorpu erre ditugu jadanik, baina kutxak gero panteoian sartu dituzte". Antzuola eta Elgeta bezalako herri txikiagoetan ere joera nagusia hildakoak hobiratzeko da Moyuaren ustez.

**ERRAUSTEKO ARRAZOIAK**

Jendeak askotariko arrazoiak azaltzen ditu erraustea hobea dela esateko: Prezioa, lekua aurreztea, arrazoi kulturalak eta garbiagoa izatea, besteak beste.

Errausketaren prezioa 350 eta 500 euro artekoa da batez beste aditu esanetan; eta hobiratzea, berriz, 1.500 eurotik gorakoa. Migel Angel Moyua ez dator guztiz bat horrekin: "Kasu horretan ere zeresan handia du hildakoa erraustu ezean zein kanposantura eramaten den. Oñatikoan, hildakoa 10 urtez hilerrian egoteko 220 euro pasa ordaindu behar dira eta hori ez da hain garestia; Arrasaten, berriz, 641 euro dira. Erraustea, Arrasaten, 290 euro dira eta horri gehitu behar genioke kutxaren prezioa".

Hilerrietako hobi eta leku falta saihestea da beste arrazoi bat. Moyuaren esanetan, "erraustearen abantaila da lekua aurreztea, baina beti daude kanposantuak leku arazorik ez dutenak". Azaldu digunez, "hilerrietan kontzesioak gehienetan hamar urterako izaten dira. Behin hamar urte igarota erraustu egin daitezke edo hezurrak kutxa batean panteoietan sartu, adibidez. Horrela, toki gehiago geratzen da". Gorpuak erraustean kutxa txikiagoetan sartzen dira, hortaz, espazio gutxiago behar da gordetzeko.

Kultura joeren aldaketak eta Eliza Katolikoak errausketa onartzeak ere izan dute eraginik errausketa kopuruaren igoeran. "Jendearen pentsamoldea aldatu egin da dudarik gabe", esan digu Arrasateko Udaleko Zerbitzuetako teknikari Amaia Aranak.

Garbitasuna da beste batzuek errausketa aukeratzeko duten arrazoia. Izan ere, ingurumena gutxiago kaltetzen duela dionik bada; beste batzuk ez datoz bat baieztapen horrekin eta diote gorpuak erretzerakoan ere kutsadura eta usain txarra sortzen direla adibidez.

**ERRAUTSEKIN ZER EGIN**

Errausketa prozesua amaitutakoan hautsak hontzi batean ematen zaizkie hildakoaren senitartekoei eta eurek erabakitzen dute zer egin. Batzuek kanposantuan zein etxean gordetzen dute kutxa; beste batzuek hauts guztiak zabaldu egiten dituzte, gehienetan hildakoak aurrez eskatutako edo horrendako esanahi berezia zuen lekuren batean; eta badira batzuek hauts batzuk zabaldu eta besteak gorde egiten dituztenak.

## Errausketak Arrasaten

| | Arrasatekoak | | Kanpopoak | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 2002 | 68 | 52,71% | 61 | 47,28% | 129 | |
| 2003 | 87 | 53,90% | 93 | 51,67% | 180 | (+%39) |
| 2004 | 76 | 53,90% | 65 | 46,10% | 141 | (-%27) |
| 2005 | 98 | 47,11% | 110 | 52,89% | 208 | (+%47) |
| 2006 | 111 | 51,38% | 105 | 48,62% | 216 | (+%3,8) |

ITURRIA: Arrasateko Udala

## Errausketak EAEn 2007an

| | HIL | ERRAUSTU | % |
|---|---|---|---|
| ARABA | 2.349 | 766 | %32,5 |
| BIZKAIA | 10.139 | 5166 | %51 |
| GIPUZKOA | 5.977 | 2196 | %36,7 |
| EAE | 18.465 | 8128 | %44 |

ITURRIA: Eusko Jaurlaritza

**"Oñatin errausketaa kopurua mantendu egin da hilerrian nahikoa toki baitago"**

**"Errautsak zabaltzeko ez dago araurik Espainian; bai, ordea, hezurrak garraiatzeko"**

Izan ere, ez dago inolako araudirik hautsak zabaltzearen gainean. "Errautsak zabaltzeari buruz ez dago araurik Espainian. Errautsen garraioa librea da, hezurrena, ordea, ez . Horretarako Osasun Sailaren agiri batzuek behar dira", esan digu Arrasateko Udaleko teknikari Amaia Aranak.

Migel Angel Moyuak azaldu digunez, "errautsak itsasoan zabaltzeko itsasontzian itsasoan barneratu beharra dagoela eta han bota errautsak; itsasertzetik botatzea debekatuta dago hautsak bueltan etortzen direlako".

Errautsak gordetzeko moduari buruz ere egin digu berba Moyuak: "Badira kutxa batzuk ekologikoak direnak; itsasora bota edo lurpean sartuz gero denborarekin desegin egiten direnak. Beste kutxa batzuk, ordea, burdinazkoak dira eta lurpean sartu edo itsasora botaz gero kutsagarriak dira. Gehienek errauts batzuk bota eta besteak gordetzen dituzte baina badira dena, kutxa eta guzti botatzen dutenak. Errautsekin diamanteak, bitxiak zein koadroak egiten dituztenak ere badira. Baina gurean ez dut uste jendek horrelakorik egiten duenik".

Hildakoak errauts bihurtu eta gorde zein zabaldu ostean, hauek oroitzea izaten da kontua. Errautsak zabaltzen diren tokian oroigarriak ipintzeko ohitura ere badago eta Antzuolan, esaterako, baldintzak ipini dituzte ohitura horiek arautzeko, besteak beste, jendeak edozein tokitan hildakoen omenez zuhaitzak landa ez ditzan.



KUTXAK Migel Angel Moyua errautsak gordetzeko kutxa ekologikoekin. I.A.

ERRAUSKETAREN PROZEDURA

**> ESKARIA**
Hildakoaren senide batek eskaera errausteko egin behar du. Eskatzailea senitartekoa ez bada hildakoaren errausteko nahia egiaztatu beharko du testamentuaren edo legezko beste agiriren baten bitartez.

**> EGUN BAT**
Gutxienez 24 ordu pasa beharko dira pertsona bat hiltzen denetik gorpua erraustera bitartean.

**> BALBULAK KENDU**
Errraustu aurretik bihotzeko balbula edo *by pass* delakoren bat izanez gero, kendu egingo zaio leherketa saihesteko.

**> FROGA**
Familiak hildakoaren identitatea frogatuko du.

**> EGURREZKO KUTXAN ERRE**
Beirarik eta metalik gabeko egurrezko kutxa batean sartuko da gorpua eta labean bi eta lau ordu artean beharko ditu 800-900 graduko tenperaturan erretzeko.

**> EGURRA ETA HAUTSA BEREIZI**
Errautsak hoztu eta egur zatiak hezur hondarretatik bereizi ostean, txikitu egingo dira.

**> KUTXAN SARTU**
Errautsak kutxa batean sartuko dituzte. Gero, kutxa kolunbario batean utzi edo senideek eraman dezakete.

**> ZABALDU ALA GORDE**
Errautsak etxean gordetzea edo zabaltzea familiakoen erabakia izango da.



IRATI AGIRREAZALDEGI

**Luis Ignacio Dominguez** > Bergarako lurperatzailea

# "Bergarako hilerrian kolunbarioa ipiniko dute laster errautsen kutxak gordetzeko"

**I.A.** > BERGARA

**Bergarako hilerrian egin genuen hitzordua Luis Ignacio Dominguezekin. Lurperatzailea da bera eta ongi ezagutzen du kanposantua, aitiitak eta aitak ere lanbide berean jardun zutelako. Hilerria bera ez ezik heriotza osteko joeren berri ere badauka eta errausketek gora egin dutela esan digu.**

**Sumatzen da gero eta jende gehiagok egiten duela gorpuak errausteren aldeko apustua?**

Azken aldian %50era iritsi gara eta badirudi joera hori mantenduko dela. 1997 inguruan hasi zen igoera. Ordura arte %3koa zen batez beste errauste kopurua eta urte hartan %16ra igo zen, gero %20ra eta azken hiru urteotan %50ekoa da.

**Bergarako hilerrian ez dago errauskailurik, ezta?**

Ez. Pentsatu zuten errauskailua ipintzea hilerrian eta proiektua ere egin zuten baina asmoa bertan behera geratu zen. Gainera, Arrasatekoa ireki zutenez beharra ez zen horren larria. Jende gehienak Arrasatera edo Elgoibarrera eramaten ditu gorpuak errraustera; baita Donostiara edo beste leku batzuetara ere.

**Zer dela eta aukeratzen du jendeak errausketa?**

Merkeagoa eta garbiagoa delako, batik bat. Hilarriak, loreak eta gainontzeko apaingarriek kostu handia daukate. Horma-hobietan beti dago oroigarrietan gastu gutxiago. Adineko emakumeak, oraindik errausteareна hain ohikoa ez zenean, galdezka hasi ziren ea hori posible zen. Izan ere, sarritan etortzen ziren hilobiak txukuntzera eta euren kezka edo zalantza zen eurak hildakoan ondorengoak etorriko ote ziren hilobiak garbitzera eta loreak ipintzera. Horregatik, azaldu zuten interesa.

**Errautsak hilerrian gordetzen dira?**

Hilobia edo panteoia izanez gero, jende askok bertan uzten ditu errautsak kutxa txiki batean sartuta. Errautsak mendian edo itsasoan ere zabaltzen dituzte batzuek, baina asko dira hilerrian bertan gordetzen dituztenak ere. Bergaran, hilabete batzuk barru, erraustsen kutxak gordetzeko hormahobi txikiagoak ipiniko dituzte kanposantuan; kolunbarioa izango dugu beste horma-hobien ondoan. Batzuek ez dituzte etxean gorde nahi baina era berean ez dituzte zabaldu ere egin nahi; hortaz, horiei ere aukera eman behar zaie. Orain dela hilabete batzuek senitarteko bat errraustu zuen herritar batek bere kezka azaldu zuen Udalean ez zeukalako errautsak non utzi eta ondorioz, prozesua azkartu egin da. Izan ere, guk aurrez kexak jaso izan ditugu baina Udalean orain artean badirudi ezetz. Beste hilerri batzuetan, Oñatin esaterako, jende askok dauzka panteoiak edo horma-hobiak jabetzan eta gutxiago dira errausten direnak. Hemen, Bergaran, ere badaude panteoiak baina errauste kopuruak gora doaz.

**Gorpuen errausketa dela eta leku gehiago dago hilerrietan?**

Horma-hobiak bost urterako izaten dira eta gainontzekoak hamarrerako baina beharra izanez gero lehenago ateratzeko aukera ematen dute; eta orain dela hamar urte leku faltan ginelako hainbat gorpu atera behar izan genituen. Gaur egun, ordea, errausketak gehitu direnez, hamalau urtez ere egoten dira hilobietan.

**Errausketen gorako joera mantendu egingo da ala gorago egingo du?**

Igo daiteke apur bat baina askorik ez dut uste. Oraindik hainbat gaztе dago esaten duena: "Erre, ezta pentsatu ere". Garai batean bazegoen erre nahi zuen jendea baina nolabaiteko beldurra, errezeloa zuena. Baina jadanik normaltzat hartzen da eta erre nahi duen jendeak ez du inolako lotsarik argi adierazteko bere nahia. Gogoan dut nola behin lehengusua apaiza hil zitzaion emakume batek zalantza zuen gorpua errraustu ala ez. Apezpikuari galdetu zioten eta esan zien gero lurperatuz gero errraustu zezaketela.

ARRAZOIA

**"Jendeak errausketaren aldeko apustua egiten du merkeagoa eta garbiagoa delako"**

ERRAUTSAK

**"Batzuek hilobian, panteoian zein etxean gordetzen dituzte; edo zabaldu egiten dituzte"**

NORMALTASUNA

**"Garai batean errezeloa zegoen errausketaren gainean, gaur egun normaltzat jotzen da"**

**ETXEBIZITZAK** > ALOKAIRUA

# Emantzipazio errenta jasotzeko eskariak dagoeneko eskuragarri daude

Emantzipazio errenta jaso ahal izateko ezinbesteko baldintza da 22 eta 30 urte bitartekoa izatea; lau urtez jasoko da emantzipazio errenta

**I.B./A.E.** > BERGARA

Eguaztenetik daude eskuragarri oinarrizko emantzipazio errenta jasotzeko eskabideak. Hala, alokairuan bizi diren EAEko gazte askok dirulaguntza jaso ahal izango dute Bizilagun zerbitzuaren bulegoetan eskatuta.

**DIRU SARRERAK**

Etxebizitza ministro Carmen Chaconek eta arlo horretako EAEko sailburu Javier Madrazok hitzarmen bat berretsi dute 22-30 urteko EAEko gazteek oinarrizko emantzipazio-errenta jasotzeko. Emantzipazio errenta jaso ahal izateko ezinbesteko baldintzak honako hauek dira: 22 eta 30 urte bitarteko adina izatea; lanean egotea; etxebizitza propiorik ez edukitzea eta alokairuan bizi izatea. Horrez gain, eskatzaileak urtean 22.000 euroko edo gutxiagoko diru-sarrera gordinak izan beharko ditu. Hori hala bada eta dagozkion inprimakiak Bizilagun zerbitzuaren bulegoetara eramaten baditu, 30 urte bete bitartean aukera izango du hilero 210 euro jasotzeko, edo eskatutako datatik hurrengo lau urteak bete bitartean.

Gainera, eskatzaileak alokairu-kontratuaren titularra izan behar du eta, prestazioaren zenbatekoa kontratuan ageri diren maizter titularren kopuruarekin zatituko da. Bestalde, alokatutako etxebizitzak ohiko etxebizitza iraunkorra izan behar du.



**ALOKAIRUA** Alokatutako etxebizitzak ohiko etxebizitza iraunkorra izan behar du. OXEL ARRIETA

**BETE BEHARREKO URRATSAK**

Eskabidea aurkeztu behar da alokatuta duzun etxebizitza dagoen Autonomia Erkidegoko edo Hiriko etxebizitza arloko eskumena duen sailean. Dagoeneko alokairuan bizi bazara, baita kontratuaren kopia bat ere. Bizilagun zerbitzuaren bulegoetako helbideak ondorengoak dira: Henao kalea, 9, Bilbon; Antilletako Pasabidea 14, Gasteizen; eta Bilbao Plaza 3, Donostian.

Oinarrizko emantzipazio errenta jasotzeko eskabideak *www.etxebide.info* eta *www.euskadi.net* webguneetan daude eskuragarri eta bertatik jaitsi ahal izango dira. Informazio orokorreko telefono zenbakia, berriz, hauxe da: 012.





GOIENKARIA

## Mairuaren irudia duindu nahi dute Antzuolako alardean

Eusko Ikaskuntzak eta Antzuolako Udalak Mairuaren Alardearen inguruko ikerketa soziokulturala egin dute eta ikerlan horren emaitzak aurkeztu zituzten eguenean. Margaret Bullen eta Xabier Kerexeta izan dira ikerketa lanaren arduradunak eta gaur egungo alardean zenbait aldaketa egitea proposatu dute. Lehenik eta behin, beharrezkoa ikusten dute mairuaren irudia duintzea. Bestetik, diskurtsoaren edukia goxoagoa, leunagoa egitea ere proposatzen dute. Margarett Bullenek uste du diskurtso horrek bakearen eta aniztasunaren aldeko keinuak egin behar dituela.

**OÑATI** > PARROKIAKO LANAK

## Hasi dira eraberritu gabeko horma konpontzeko lanak

Horma bi hilabetetan eraberrituta egotea espero du Teusa enpresa donostiarrak

**ARRITXU BARRUSO** > OÑATI

Mikel Goiaingeruaren parrokiako atari nagusitik Irizar estanko aldera doan horma eraberritzeko lanak egiteko jarri dituzte dagoeneko aldamioak. Harria garbitu, junta guztiak ireki eta saneatu egingo dituzte.Ondoren, berriro itxi egingo dituzte juntok. Aurreikuspenak betez gero, eraberritze lanak bi hilabeteren buruan amaituko dituzte. Modu honetara guztiz bukatuta geldituko dira Oñatiko parrokia zaharberritzeko lanak.

Teusa enpresak egingo ditu horma konpontzeko lanak. Parrokiako kanpandorrea, klaustroa eta eliz ataria eraberritzeko lanak egin dituen enpresa berberak. Lan hauek bukatuta, sakristiako lurra eta sistema elektrikoa berritzea da parrokoaren asmoa. Baina hori aurrerago egingo dute.



**PARROKIA** Horma konpontzeko aldamioak jarri dituzte. LEIRE KORTABARRIA



GABIRIA DORREA 2006ko uztailean hasi zituzten Gabiria berritzeko lanak. Amenabar enpresak egin ditu, 1,6 milioi euroko aurrekontuarekin. JOSETXO ARANTZABAL

**ONDAREA** > GABIRIA DORREA

# XV. mendeko Gabiria dorrea berritzeko lanak amaitu dituzte

Tavex Algodonerak eta erakundeek egin dituzte berritze lanak elkarlanean; eguenean egingo dute aurkezpen ekitaldia, Gabiria Dorrean, 13:00etan

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Urte eta erdiko lanen ondorioz, amaitu dituzte Gabiria dorrea berritzeko lanak. XV. mendeko eraikinaren egoera kaskarra ikusita, Bergarako Udalak eta Tavex Algodonerak hitzarmena sinatu zuten birgaitzeko lanak bi alderen artean ordaintzeko. Udalak eta Diputazioak 780.000 euro ipini dituzte, eta Tavex Algodonerak 900.000 euroko inbertsioa egin du. Eraikina Udalarena bada ere, Tavex Algodonerak datozen 30 urteotan erabiltzeko aukera izango du. Tavexeko zerbitzu orokorrak bertan kokatuko dira eta urte berriarekin batera 30 lagun ari dira bertan lanean.

Manu Diaz Tavex Algodonerako idazkari orokorraren hitzetan, "1846tik gure lantegia San Antonion egon da eta bertan jarraitzea zen gure asmoa. Era berean, azpimarratzekoa da erakundeek eta enpresa pribatuak horren balio handia duen eraikina berreskuratzeko aurrera eramandako ekimen hau".

**MONUMENTU HISTORIKOA**

Gabiria dorrea XV. mendean hasi ziren eraikitzen, jatorrizko eraikinetik oso gertu, 1457an eraitsi egin baitzuten Enrique IV.aren aginduz. Gabiriatarrak XVII. mendeko lehen erdira arte bizi izan ziren han; ordutik hainbat maizterrek hartu zuten errentan. 1719an erre egin zen, eta inoiz ez zuten osorik berreraiki.

Monumentu historiko-artistiko izendatu zuten Gabiria 1964an. 2002an, monumentu izendapena jaso zuen Jaurlaritzaren partetik. Egueneko aurkezpenean, erakundeetako eta enpresako ordezkariak izango dira.

**LANGABEZIA**

## Urte bukaeran, 1.812 langabe

Batez beste %5ekoa izan da langabezia tasa urte osoa kontuan hartuta

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

INEMek emandako datuen arabera, abenduan Debagoienean 1.812 langabe zeuden, %5,85, hain justu ere.

Halaber, urte bukaeran langabezia daturik handiena zuen herria Aretxabaleta zen, %7,03rekin.

**OTSAILEAN GEHIEN**

Urte guztiko datuak ikusita, langabeziak gorabehera askorik izan ez duela azpimarratu behar da. Langabezia tasarik handiena otsailean egon zen; hala, 2007ko bigarren hilabetean, Debagoienean 1.820 lagun zeuden langabezian, %5,87.

Era berean, 2007an, zazpi hilabetean egon zen langabezia ehuneko bostaren gainetik: urtarrilean, otsailean, martxoan, irailean, urrian, azaroan eta abenduan. Ekainean 1.408 lagun zeuden langabezian, abenduan baino 404 lagun gutxiago.

**HERRIZ HERRI**

INEMek emandako datuak herrika ikusita, Arrasate izan da batez besteko tasarik handiena izan duena; baina abenduko datuetan Aretxabaletak zuen langabe gehien.

Bestetik, Leintz Gatzaga (%1,50), Elgeta (%3,66), Oñati (%3,85), eta Antzuola (%4,84) izan ziren Debagoieneko tasaren batez bestekoaren azpitik egon zirenak.

## 'Arantzazu' aldizkari berritua aurkeztu zuten zapatuan, Kursaalen

*Arantzazu* aldizkari berrituaren aurkezpen ekitaldia egin zuten zapatuan Donostiako Kursaalen. Joseba Intxausti ekitaldiko aurkezleak aldizkariaren historiaren errepasoa egin zuen. 1921ean sortu zuten aldizkaria eta ordutik 16 zuzendari izan ditu. Enrike Arozena eta Jesus Barrona omendu zituzten zapatuan. Iñaki Beristainek, egungo zuzendariak, *Arantzazu* berritua zabala, garaikidea eta anitza dela esan zuen. Musika doinuak ere izan zituzten ekitaldian Musikeneko flauta laukotearekin eta Andoni Egañak eta Imanol Lazkanok bertsoak eskaini zituzten.




GOIENKARIA

> ZINEMA ETA HISTORIA

## Jardunaldien hasiera bihar, martitzena, Kulturaten

Bihar, martitzena, hasiera emango zaie Arrasateko Kulturaten *Historia zinemaren bidez* izenburuko jardunaldiei. *Cine e historia. ¿Una relación conflictiva?* hitzaldiarekin hasiko dira jardunaldiok, 18:00etan. Santiago de Pablo EHUko irakaslea izango da biharko hizlaria.

Jardunaldiak otsailaren 19ra bitartean izango dira, 18:00etatik 20:00etara. Bost saio egingo dituzte eta hurrengoetan film bana eskainiko dute. Datorren asterako, urtarrilaren 22rako, Erdi Aroan girotutako *Erresumako piztia* filma iragarrita dago.

Espainiako Auzitegi Nazionalak 18/98 auziari dagokion epaiari buruzko balorazioa egin zuten defentsako abokatuek. Hesteetako gaixotasun bat tarteko epaiketatik kanpo geratu arren, aitaren atxiloketa gertutik bizi izan duen Iñigo Elkoro abokatuarekin hitz egin dugu. Epaiaren balorazioa politikoa egin digu, eta bere egoeraren ingurukoak azaldu dizkigu.

**Iñigo Elkoro** > Abokatua

# "Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokaren aurkako epaia da"

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

**Iñigo Elkoro bergararra 18/98 auziaren epaiketatik kanpo geratu zen gaixotasun bat tarteko, eta epaiketaren zain dago oraindik. Bada, une gogorrak bizi izan ditu auzikideen eta aitaren atxiloketaren kontura. Auzitegi Nazionalak emandako epaiaren inguruan hitz egin dugu harekin.**

**Abokatu eta inplikatu moduan zer nolako irakurketa egiten diozu Auzitegi Nazionalak emandako epaiari?**

Auzitegi Nazionalak eman duen epaiak bat egin du espainiar eta frantziar estatuek daramaten gerra estrategiarekin. Halaber, epai honetan pertsonak epaitu dira, bada, arazoa sakonagoa da: epaia Euskal Herriaren aurkako epaia da, Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokaren kontrako epaia da. Hau da, Euskal Herriaren izaeraren eta existentzia beraren aurkako epaia da.

**Defentsako abokatuek salatu dute ez zaiela defentsako lana behar bezala egiten utzi.**

Hala izan da. Prozesua jarraitu duen edonork ikusiko zuen ez dutela lana baldintza onetan egin. Hasieratik jarri dizkiote oztopo asko: dokumentu asko ikusteko aukerarik ez dute izan, haiek proposatutako 230 lekukoak baliogabetu egin zituzten... Edozelan ere, txalotzekoa da egin duten lana.

Halaber, garbi izan behar dugu, hasieratik, defentsako abokatuen lana oztopatzeko erabakia hartuta zutela agintariek. Guretzako epaiketa hau ez da izan epaiketa juridiko bat, gerra auzi bat izan da, eta halakoetan tresna juridiko guztiak soberan daude. Epaiketa buruak hasieratik esan zuen, adibidez, berari Estrasburgoko Europar Giza Eskubideen Aldeko Auzitegiak dioena bost axola zitzaiola. Hala, ezin zitekeen epaiketa juridiko bat espero, eta are gutxiago, justizian eta legean oinarritutako epai bat.

**Hortaz ez da epaiketa garbia izan?**

Zalantza barik, ez. 18/98 auziko epaiketa ez da juridikoa izan, beste behin, Burgoseko epaiketarekin alderatu behar dugu, epaiketa hark izan zituen elementu berdinak izan ditu-eta.

**Epaia hain zorrotza izango zela uste zenuen?**



Iñigo Elkoro bergararra epaiketaren zain dago. MIREIA BIKUÑA

EPAIKETA

**"Epaitu dituzten 47 lagunek, Espainiako Kode Penalaren arabera ez dute inongo deliturik egin"**

"DENA ETA DA"

**"Euskal Herriaren eraikuntzan edo askatasunaren aldeko lana bada, Espainia zigortzen saiatuko da"**

ZAIN

**"Ni baldintzapeko askatasunean nago, epaiketaren zain; bada, ez dakit noiz izango den"**

Ez nau ezustean harrapatu. Zalantzarik ez nuen epaia eredugarria izango zena, guztiok kontutan hartzeko modukoa. Eta, hala izan da.

**Epaiketan 47 lagun epaitu dituzte, bada defentsako abokatuek "deliturik ez dagoela" esan dute.**

Eta hala da, ez dago deliturik. Espainiako Kode Penalean dauden delituak aintzakotzat hartuta, epaitu dituzten lagun guztiek deliturik egin ez dutela azpimarratu behar da. Bada, Espainiako Gobernuak, ETAren helburu ideologikoekin bat egiten duten pertsona eta eragile guztiak kriminalizatu eta epaitu egingo ditu. Hortaz, Euskal Herriaren alde borrokatzen den edonor ETAko kidetzat hartuko dute. Hori da Espainiako Gobernuak zuen helburua, eta Auzitegi Nazionalaren epaiarekin lortu dute.

**Lehenengo aldia da epai batek "ETA dena da" esaten duena. Zer esan nahi du horrek?**

Azalpena oso erreza da: espainiar estatuak Euskal Herriaren kontra antolatuta duen gerraren beharren arabera, definizio mugagabe hori nahi duen eran erabiliko du. Hortaz, Euskal Herriaren alde egiten duen edonor sartu dezake definizio zabal hartan Era berean, berdin da arlo politiko, kultural zein kirol munduan lan egin, Euskal Herriaren eraikuntzan edota Euskal Herriaren askatasunaren aldeko lana bada, Espainia zigortzen saiatuko da. Epaiak hartarako bide berri bat zabaldu du.

**Defentsako abokatuek behar beste helegite aurkeztuko dituztela esan dute.**

Defentsako abokatuei epaiketan egiten utzi ez zietena egiten saiatuko dira. Edozelan ere, abokatuek egin maila handiko defentsa egin dute, modu oso profesionalean. Baina oso luzea izango da. Lehenengo Auzitegi Gorenak erabakia hartu behar du, eta ba t edo bi urte pasa daitezke: eta, ondoren beste hiru, lau edo bost urte Estrasburgoko auzitegiak epaia eman arte.

Bada, euskal herritarrok asko egin dezakegu, giltza gure esku dago-eta. Hortaz, Euskal Herriaren eraikuntzaren eta askapenaren aldeko borrokan tinko jarraitu behar dugu. Hori da bidea.

**Hesteetako gaixotasun batengatik 18/98 auziko epaiketatik kanpo geratu zinen. Zein puntutan dago zure kasua?**

Epaiketa hasi eta berehala oso gaixo jarri nintzen, eta epaiketa ez etetearren kanpoan utzi ninduten. Hortaz, une honetan epaiketaren zain nago. Oraindik ez dakit noiz egingo duten epaiketa eta nolakoa izango den. Hala, orain hasieran bezala nago, behin behineko eta berme ekonomikopeko askatasunean.

**Nola bizi izan duzue etxean prozesu guztia, aita eta zu zeu tartean egonda?**

Oso gogorra izan da, batez ere aita ere erdian egon delako. Epaiketa oso astuna izan da, fisikoki asko erretzen du. Aita txilotu zuten unea ere oso latza izan zen guretako. Eta gaixotasunaren albistea ere mingotsa izan zen. Bada, zutik jarraitzen dugu.

**Gizarteak izan duen erantzuna, nola baloratzen duzue?**

Nik, bi balorazio ezberdin egingo nituzke. Alde batetik Euskal Herrian egon den erantzuna oso adierazgarria izan da: Bilbon egindako manifestaldia eta jendarteak, orokorrean egindako lanuztea, besteak beste. Hortaz, herritarren jarrera txalogarria izan da.

Beste alde batetik, ELA sindikatuaren eta alderdi politiko batzuen jarrera negatiboa azpimarratu nahi nituzke; EAJ-PNV, Nafarroa Bai (EA, Aralar eta EB) eta IU alderdiek hitz politak esan zituzten une hartan, bada, egun berean, Madrilen, Guardia Zibilari eta justizia aparatuari babes oso eman zioten. Hortaz, bide errepresiboarekin bat egin zuten.

Hala, alderdi politikoek erakutsi zuten hitzak haizeak eroaten dituela, benetan zein den haien apostua. Hala, sinadura harekin alde bakoitzaren jarrerak zehaztuta geratu ziren.

## oharrak eta deialdiak

BERGARA
**> 1956an jaiotakoek bazkaria egingo dute**
1956an jaiotakoek batera bazkaltzeko aukera dute urtarrilaren 26an, zapatua, Zabala jatetxean. Hantxe eman behar da izena (943 76 20 07), urtarrilaren 19a baino lehen.

ARETXABALET
**> 'Gorputzaren musikak' tailerra egingo dute**
*Gorputzaren musikak* delako tailerra antolatu du Loramendik urtarrilaren 31rako. Musikaren laguntzarekin, sentitzeko, pentsatzeko… espazioa irekitzen irakatsiko dute. Izenematea, Loramendin (943 77 09 70 edo *loramendi@topagunea.com*).

OÑATI
**> Interneten arriskuen gaineko hitzaldia**
*Interneten arriskuak eta haurren babesa* delako hitzaldia egingo du etzi, eguaztena, Jorge Flores adituak Txantxiku ikastolan, 18:30ean. Gaztelaniaz izango da.

OÑATI
**> Gurasoendako ekintzak Elkar Hezin**
Etzi, eguaztena, *Fedean hazi berezia* hitzaldia egingo dute DBHko guraso eta irakasleendako, Santa Marinan, 18:30ean, eta eguenean, *Nola landu autoestimua familian?* delakoa, HH eta LHkoendako, Arantzazuko Amako egoitzan, 18:30ean.

ARRASATE
**> Bi ikastaro antolatu ditu Ekin elkarteak**
Eskulan eta orraztulan ikastaroak antolatu ditu Ekin emakume elkarteak. Izena emateko, deitu 943 79 83 70 telefono zenbakira.

ARRASATE
**> Yoga ikastaroa antolatu berri dute**
Yoga ikastaroan izena emateko aukera dago. Izenematea: 635 71 06 16 edo 943 78 31 26.

BERGARA
**> EAJren Gabonetako zozketako irabazlea**
EAJren Gabonetako zozketako zenbaki saritua 0.140 izan da.

ARRASATE
**> IT Txarteleko azterketak egingo dituzte**
IT Txartela ateratzeko azterketak izango dira KZgunean honako egunetan: bihar, martitzena, 11:00-13:00, eta etzi, eguaztena, 18:00-20:00.

ARRASATE
**> Dantza egiptiarren ikastaroa egingo dute**
Primi Vela mojak Indian dihardu, Ankur delako umezurtz-etxean lanean, eta Harreman GKEak proiektu horri laguntzen dio. Hala, Indian globalizazioak dituen ondorioak eta umezurtz-etxe haren gaineko berbaldia egingo du gaur, astelehena, Kulturaten, 19:00etan.

ARETXABALETA
**> Euskarazko webguneen gaineko ikastaroa**
Euskarazko webguneak ezagutzeko ikastaroa antolatu du Loramendik hilaren 15, 16 eta 22rako. Izenematea gaur bukatzen da.

BERGARA
**> Zeramika ikastaroa antolatu dute**
Zeramika ikastaroa antolatu dute otsailerako, astean bi egunean, lau ordu. Izenematea, 943 20 65 01 telefonoan.

ARETXABALETA
**> Aratusteetarako makillatzen irakatsiko dute ikastaro baten, Loramendik antolatuta**
Loramendi elkarteak denetariko ikastaroak antolatu ditu, eta horietako bat Aratusteetan egoki makillatzen ikastekoa izango da. Gemes edertze aretoko makillatzaileek emango dute. Praktikoagoa izateko, norberak bere mozorroa ekartzea gomendatzen dute. Izenematea zabalik dago 943 77 09 70 telefonoan.

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

ELGETA
**> Imsersoko bainuetxe programan izenematea**
Irailetik abendura bitartean parte hartu nahi dutenek maiatzaren 16a baino lehen eman behar dute izena udaletxean, Gizarte laguntzailearengana joanda.

OÑATI
**> Informatika ikastaroak antolatu dituzte**
Informatika ikastaroak izango dira, Udal Enplegu sailaren eskutik. Otsailetik apirilera, ofimatika, Linux eta Openoffice, Photoshop eta beste batzuk emango dituzte. Izenematea, Ikas Hirun (943 78 31 03).

BERGARA
**> Berriketan taldeak afaria egingo du**
Egubakoitzean, Oxirondo elkartean afalduko dute, elkar ezagutzeko. Argibideetarako, joan Jardunen bulegora, edo deitu 943 76 08 19 telefono zenbakira.

ARRASATE
**> Ludotekan lan egiteko hezitzaile bila**
Txatxilipurdi elkarteak hezitzaileak behar ditu aste barruan lan egiteko. Interesa dutenek 943 79 54 46 telefonora deitu behar dute.

ARRASATE
**> Abaroa elkartea hasi da urteko kuota kobratzen**
Erretiratuen Abaroa elkarteak urteko 6 euroko kuota kobratuko du martxoaren 14ra arte.

## etxeko leihotik



**Oihane Agirre** > GOITBko programazio zuzendaria

# Noiz heldu zinen lanera pasa den eguenean?

Osteguna haserre hasi zuten makinatxo bat debagoiendarrek, errepidean ez aurrera ez atzera geratu ziren asko eta asko. 08:20ak aldera Epeleko bidegurutzean gertatu zen istripuak sortu zuen kaosa, bi noranzkoak itxita geratu baitziren. Ertzaintza San Prudentzioko biribilean jarri zen Oñatitik eta Bergaratik zetozen autoak Bergarako autopistara bideratzen. Beraz, Bergaratik zetozenak San Prudentziora heldu behar izan ziren istripuaren berri izan eta berriro Bergararako bidea hartu eta autopistan sartzeko. Arrasate aldetik zetozenek ere autopista hartu behar izan zuten. Kaosa autopistara ere hedatu zen laster, ordainlekuan 0,53 euro ordaindu ostean zabaltzen bait zituzten hesiak. Ordainlekuko langileek entzun behar izango zituztenak! Gainera urtebete pasa inauguratutako Bergara eta Arrasate arteko autopista tartean, karriletako bat itxita zegoen konponketa lanak direla eta. Hiru ordu luzez errepidea moztuta egon zen, baina bi ordu t´erdi pasatu behar izan ziren ordainlekuko hesiak zabaldu zituzten arte. Zergatik hainbeste denbora, hesiak zabaltzeko agindua eman arte?

**"Bi ordu eta erdi pasatu behar izan ziren hesiak zabaldu zituzten arte"**

**> Emakumezko autobus gidari bat baino gehiago ikusi ditut lanean azkenaldian. Orain arte gizonezkoen lanbidea zirudien, eta asko poztu nau neska gazteak gidari lanetan ikusteak.**

**> Benetan zikinak daude Aretxabaleta inguruko errepideak. Astebete da autoa garbitu nuela, baina ezertarako! Herri sarreran autoak garbitzeko makina bat jarri beharko lukete.**

## debagoiendarrak kanpoan

**Alberto Sarasketa** > Elgeta

# "Astero etortzen naiz Elgetara, ama bisitatzera eta askaria hartzera"

MIRIAN BITERI > ELGETA

**Alberto Sarasketa 28 urte daramatza Azkoitian bizitzen. Adin bera zuela, Elgeta utzi zuen. Urte guzti horietan ez du jaioterriarekin harremana galdu gura izan. Hala, astero joaten da, ama bisitatzera eta berarekin askaria hartzera. Horrez gain, urtero afaria egiten du lagunekin, Gabonen atarian. Herria faltan botatzen duela azpimarratu du Sarasketak hurrengo lerroetan.**

**Noiz joan zinen Elgetatik Azkoitira bizi izatera?**
Urte asko daramatzat Azkoitian bizitzen. Neska batengatik aldatu nuen bizilekua. Hala, ezkondu nintzenean Azkoitira etortzea erabaki nuen, 28 urte nituela. Urte kopuru bera daramatzat herri horretan. Bizitza erdia, beraz, Elgetan eta beste erdia, Azkoitian pasa dut. Bada, esan beharra dago elgetarra sentitzen naizela, behetik goraino eta goitik beheraino.

**Nola moldatu zinen Azkoitiko bizimodura?**
Oso ondo. Ez nuen aparteko arazorik izan hango bizimodura ohitzeko. Ez dago hainbeste alderik herri batetik bestera, nik behintzat ez dut sumatu. Ezagunak erraz egin nituen han, inongo arazo barik.

**Elgetara etortzeko ohitura duzu?**
Bai. Astero etortzen naiz bisita egitera. Hasieran astelehenetan etortzen nintzen. Gero, egubakoitzera aldatu nuen eguna eta azken 20 urteotan ostegunetan etortzen naiz herrira.



**Lan Mobelen lan**
Azpeitiko Lan Mobel kooperatiban egiten du lan gaur egun Alberto Sarasketa elgetarrak.

**Egun osoa pasatzeko aprobetxatzen duzu?**
Ez, ezin dut-eta. Lanetik irten ostean, autoa hartu eta ama bisitatzera nator. Azpeitiko Lan Mobel kooperatiban egiten dut lan.
Elgetan etxean ematen dut denbora gehien, amarekin hitz egiten eta askaria hartzen. Azkoitira bueltatu aurretik, batzuetan, tabernetan ere ibiltzen naiz, txikiteoan.

**Beraz, elgetarrekin harremana izaten jarraitzen duzu…**
Bai, hala da. Gustuko dut elgetarrekin egotea eta aspaldiko ezagunak ikustea. Gainera, lagunekin ere egoten naiz.
Hala, afaria izaten dugu urtero. Gabonen atarian egiten dugu. Urte asko daramatzagu afari hori egiten, 30 bat urte gutxi gora behera. Horrelako ospakizunak ere mantendu behar dira. Horrez gain, kintadetara joaten ere saiatzen naiz.

**Zer da Azkoititik gehien gustatzen zaizuna?**
Bi gauza nabarmenduko nahiko nituzke bereziki. Alde batetik, kaleetan dagoen giroa aipatuko nuke. Oso gustuko dut han dagoen giroa. Horrez gain, pilotariak ere atsegin ditut. Hangoak bereziak direla iruditzen zait.

**Badago zerbait faltan botatzen duzula. Alegia, zer eramango zenuke Azkoitira?**
Bai, badago. Herria bera botatzen dut gehienbat faltan. Ezin dut gauza zehatz bat aipatu, Elgeta osoa botatzen dut-eta faltan.

kale inkesta

# Sumatu al duzu urte hasieran eman den prezioen gorakada eguneroko erosketetan?



**Euxebio Txintxurreta**
Erretiratua
Bergara



**Maria Luisa Sarabia**
Erretiratua
Bergara



**Arantzazu Seco**
Langilea
Bergara



**Antxoni Txintxurreta**
Erretiratua
Bergara

Noski igarri dudala. Hori igartzen ez duena benetan ergela da. Urtero igotzen dituzte prezioak baina aurtengoa gehiegizkoa izan da. Orain gainera euroarekin… Hobeto bizi ginen garai bateko 20 durokoarekin.

Asko igarri dut. Ogia, esnea... Dena igo da aurten eta pila bat gainera. Baina arazoa da pentsioek bere horretan jarraitzen dutela eta ez gara hilabete amaierara iristen. Euroarekin, gainera, ezinezkoa da ezer egitea.

Pila bat igarri dut. Ogia asko igo da baina bereziki esnea. Astero-astero igotzen dute esnearen prezioa. Nik erosten dudan esnea, adibidez, bi hilabetetan 40 zentimo igo da. Soldatak, baina, ez dira neurri berean igo.

Nik egia esan ez dut horrenbeste igarri, ez dut asko gastatzen. Gainera, prezioak igo diren arren, soldatak ere igo egiten dira, beraz, poltsikoetan ez da horrenbeste igartzen. Nik uste dut urteroko kontua dela.

irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

## goienkaria@goiena.com

BERGARA
**> Espaloia gaizki badago, denondako arriskua**

Bergarar bat harri eta zur geratu zen joan den astean, ilunkara baten, Jameko biribiletik gasolindegira bitarteko bidean autoilara bat ikustean; aurrean, errepidetik, emakume nagusi bat zihoan, eta gidari batekin ika-mikan ibili zen une batzuetan. Arrazoia, irakurleak dioskunez, "espaloia oso-oso gaizki, apurtuta" dagoela. "Jendea errepidera irten behar da, eta horrela sortzen da arriskua. Espaloi zati hark konpontzeko premia handia du".

OÑATI
**> Gabonetako argiak, oraindik kendu barik**

Oñatiar bat harrituta gelditu zen, joan den astean herriko zenbait kaletan Gabonetako argiak kendu barik zeudela ikustean. "Uste dut Errege ostean bertan kendu beharko lituzketela, lehenbailehen; bestela, zatar eta guzti geratzen dira, axolagabekeria itxura ematen dute eta. Gainera, itzalita daude orain…"

BERGARA
**> Aste bukaeran, Agorrosinek ordutegi okerragoa**

Kirolzale bergarar bat ez dago batere pozik Agorrosinen ipini dituzten ordutegi berriekin. Hauxe dio: "Aste bukaeran, jende askok aprobetxatzen du kirola egiteko, eta ez du zentzurik Agorrosin ordu bete beranduago irekitzeak eta ordu bete lehenago ixteak. Jendeari aisildirako eta kirola egiteko aukera zabalagoa eman behar zaio aste bukaeratan".

usteak uste

Jasone Zabala

# Loteriarik ez, eta zoriontasuna?

Joan dira San Ildefonsoko neska mutikoak eta baita *Niñoko* loteria ere, eta guzti honen ondoren nola aurkitu ditugu gure poltsikoak? Hutsik! Zorterik ez da egon, eta gure poltsikoetan diru gutxiago daukagu. Gainera, lanera joateko berdin- berdin jaiki behar gara…Ez da ezer aldatu zoritxarrez, edo beharbada zorionez? Gure kontu korrontea milioi bat euro gehiagoz beteta ikusiko bagenu, orain garena baino zoriontsu izango ginateke? Beharbada bai, edo beharbada ez, nork daki? Diruak ematen al digu zoriontasuna? Askok ez dakigu, ez baitzaigu ezer tokatu. Baina seguru egon, orain daukagun zoriontasun hau inork ez digula kenduko, gure poltsikoak hutsik egonda ere, inongo dirua baino garrantzitsuagoa delako.

zorroztailea



Markos Balentziaga

# Mairuaren Alardea

"Eusko Ikaskuntzak eta Antzuolako Udalak egindako ikerketaren ondorioetako bat zera da: Mairuaren Alardea ez dagoela uste bezain gainbeheran. Udalean zuten kezka ulertzekoa zen, baina ez da horrenbesterako. Alardeak bizitasun sintomak dauzka eta historia eta folklore aldetik dituen ezaugarriak garrantzitsuak dira"


Un juzgado de Donostia remite al de Tudela la tramitación de las denuncias del caso Urbancasa
Propuestas para dignificar al rey Moro de Antzuola

Noticias de Gipuzkoa > 2008-01-11

Ondo da Antzuolak Mairuaren alardea edota Moruaren gerria –aspaldi haundi samarreko eran esanda– barrittu nahi izatia; era horretara, turismuak, herri-giruak, jaixak eta Antzuolaren naziñoarteko famiak irabazixan irtengo dabe-eta.

Alardia makaldu eta ahuldu samartuta zebillela pentsau ei zeban Antzuolako udalak eta, zeozer egin nahixan, Alardiorren gañeko azterketa-lan bat eskatu zotsan Eusko Ikaskuntzari.

Horren guztiaren barrixa joan dan egubakoitzeko *Noticias de Gipuzkoa*-k emoten zeban. Eusko Ikaskuntzak biribildu daben lanak erakusten ei dau Alardia ez dagoala Antzuolako udalak uste zeban bezain flako eta exkax jendiaren estimaziñuan, baña zer hobetua badaukala.

Naparruan daguan Valdejunqueran 920. urtian izandako gudaldixan dauka ustezko oiñarrixa Mairuaren alardiak. Han kristauak eta moruak alkar narrutzen jardun zeben, eta, kristauak urten galduan.

Kontua da Antzuolaren famiaren goreneko gaña dan Mairuaren alardiak ez daukala zuztar historiko segururik, ez Valdejunqueran, ez Irimopian.

Politta, ametsa!

Zuztarrik izatekotan, zuztar hori ?Xabier Kerexeta aztertzailliak *Noticias de Gipuzkoa*-ri esan dotsanez?, XVII. mendean Antzuola Bergaratik apartau eta herri bihurtu izana ei da.

Kontxo! Neri kuriosua begitantzen jat, benetan be, gorabehera hori: zer ikusi dauka 920. urteko Valdejunquerako gerra-batallatxuak XVII. gizaldiko droga politiko batekin? Bergararroi moro iritzi ete zoskun alardiaren asmatzailliak?

Tira, hobe biharrez, pentsau daigun bakoitza bere zoruak bizi dabela, eta, Antzuola, Valdejunquerak. Zer litzake Antzuola Mairuaren alardia barik? Fantasia barik ez dago herririk!

**"Kontua da Mairuaren alardiak ez daukala zuztar historiko segururik"**

**"Bergararroi moro iritzi ete zoskun alardiaren asmatzailliak?"**

ASTELEHENEKO
Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Edu Mendibil **Erredakzioa** Mireia Bikuña, Leire Kortabarria, Jasone Zabala eta Arritxu Barruso **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Alex Azkarate **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



**> BERGARA**
San Martin ikastetxeak mobilizazioak bertan behera laga ditu **> 11**



**> OÑATI**
Zubikoa kiroldegiak zerbitzu berriak eskainiko ditu laster **> 12**



**> ARETXABALETA**
Dantzariak dira Udaleko egutegiaren aurtengo protagonistak **> 13**

**BERGARA** > IKASTAROA

# Umeen kantuak, jolasak eta ipuinak ikasteko inoiz ez da berandu

**IKASTAROA** Hamabost lagunek eman dute izena Euskara batzordeak antolatutako ikastaroan

**ZAZPI SAIO** Ana Carpintero da irakaslea eta zazpi saio egingo dituzte

**UMEEN EREDUA** Kantuak, jolasak eta ipuinak landuko dituzte



**IKASTAROA** Zapatuan Bergaran ikastaroari hasiera eman zioten ikasleak eta eskuman, goian, Ana Carpintero irakaslea. EDU MENDIBIL

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Giro onean, jolasean ikasiz, aurkitu genituen zapatuan umeen kantuak eta jolasak ikasteko saioei hasiera eman zioten ikasleak. Bergarako Udaleko Euskara batzordeak antolatuta, 15 lagunek eman dute izena ikastaroan, zapatuan zenbaitek huts egin bazuen ere. Zapatukoarekin batera, zazpi saio izango dituzte otsailaren bukaerara arte Zabalotegin, Udal Euskaltegian.

Ana Carpintero Mariaren Lagundiko irakasleak esperientzia luzea du honelako ikastaroak ematen. Orain dela 9 urte hasi zen eskolak ematen eta ordutik 20 bat ikastaro eman ditu han eta hemen. Aurrekoa Oñatin egin zuten, joan den azaroan. Carpinteroren hitzetan, "gaur egun asko galdu da kantuen jolasen transmisioa eta hori bat berreskuratzea da helburuetako, bide batez seme-alabekiko lotura afektiboa indartzeko. Egia da, egoerak behartuta, garai bateko belaunaldiek ez zuela altxor hori euskaraz jaso eta hori berreskuratzen saiatuko gara hurrengo asteotan. Horretarako, Bergarako ikastetxeetara jo genuen aurretik, jakiteko zer nolako kantuak eta jolasak lantzen dituzten gaur, gurasoek ere horiek ikasteko aukera izan dezaten".

**GURASOEK ETA HEZITZAILEAK**

Gurasoak bakarrik ez, seme-alabarik ez dutenek ere hartzen dute parte, "aisialdian haurrekin lanean ari direnak batez ere. Oraingo honetan seme-alabarik ez duten hiru lagun ari dira", Ana Carpinterok argitzen digunez.

Ez da Xabier Gallastegiren kasua. Urtebete pasatxo egin du haren semeak eta ikastaroan partе hartzera animatu da: "Beti dago ondo horrelako gauzak ikastea, denboraren poderioz galduta dauzkagulako. Lehen saioan asko gozatu dugu, ikasteko gauza errazak direlako. Gero etorriko da ikasitakoa praktikara eramateko ordua...". Bergaran bizi den Paki Urrestarazu oñatiarra da beste ikasleetako bat. 22 hilabete ditu haren semeak: "Gauza ederra da umeen gauzak ikastea, garrantzi handia ematen diot nik horri".

## Ahozko transmisioaren garrantzia berreskuratzea da helburuetako bat

Bergaran zapatuan hasitako ikastaroa 14 ordukoa da eta, astero bi orduko saioa egingo dute. Umeen kantu eta jolasak gaztelaniaz lantzeko aukera ere eskaini izan dute, baina oraingoan ez da talderik sortu. Dena dela, Carpinteroren arabera, harrera ona izan dute ikastaroek ibarreko herrietan. Helburu nagusiak bi izango lirateke: euskaraz jolasteko tresnak eskaintzea gurasoei eta hezitzaileei eta, aldi berean, kalitatezkoa izatea haurrekin ematen dugun denbora: "Gurasoek gero eta denbora gutxiago daukate gaur, askotan biek ere etxetik kanpora ematen dutelako eguneko zatirik handiena. Eta ahozko transmisioak garrantzi handia galdu du, orain dela urte batzuetako egoerarekin konparatuta", dio Ana Carpinterok. Ipuinak ere landuko dituzte. Ikasle zintzoak ditu oraingoan, irakasleak agindutako ariketak egiteko protestarik egiten ez duten horietakoak. Ikastaroko azken saioa umeekin egingo dutela aurreratu zuen Carpinterok.



Ikasleek hainbat kantu eta jolas landu zituzten zapatuko saioan. E.M.

**OBRAK** > ZERRAJERAKO URBANIZAZIOA

# Errepide eta jolasgune berriak Zerrajeran

## Arrasateko Udalak lehiaketara atera ditu Zerrajera guneko urbanizazio lanak

Gehienez jota, 6.175.065 euroko aurrekontua aurreikusi dute proiektuan

**U.M.** > ARRASATE

Zerrajera gunean egiten dabiltzan eta datozen urteotan egingo dituzten etxebizitzen (babes ofizialeko 672 etxebizitza) inguruko urbanizazio lanak lehiaketara atera ditu Arrasateko Udalak.

Oro har, proiektu osoaren barruan, lehen faseko urbanizazio lanak (babes ofizialeko etxebizitzei dagozkienak) bukatzear daudela jakinarazi dute Udaleko Hirigintza Sailetik.

Beraz, orain Udalak adjudikatu gura dituen lanak dira bigarren, hirugarren eta laugarren faseei dagozkienak. Horren arabera, 60.000 metro koadro inguru dira orain urbanizatu beharrekoak.

Lan horien aurrekontua da, gehienez jota, 6.175.065,90 euro. Eta enpresek otsailaren 7ra arteko epea dute proposamenak aurkezteko.

**ERREPIDE BERRIAK**

Denetarik egin behar da urbanizazio lan horien barruan: azpiegiturak sartu, errekaren ubidea berritu, zoladura lanak eta halako lan orokorrak.

Elementu batzuk nabarmentzekotan, baina, aipatzekoa da, adibidez, Zerrajera gunearen atzeko aldetik, hau da, Arrasateko saihesbidearen malda azpian errepide berria egin behar dutela. Eta errepidearekin batera, bidegorria ere egingo dute.

Errepide horrek lotura lanak egingo ditu San Andres auzotik Zerrajera gunera, Saiolanera sartzen denarekin.

Halaber, hori errepide berria izango denez, bataiatu ere egin behar izan dute: Zerrajera izena ipintzea erabaki du Udalak.

Eta aipatzekoa da, baita ere, Zerrajera gunearen ondoan ospitalea dagoela kontuan hartu eta anbulantziendako bide berezi bat egokitzeko asmoa ere badutela, proiektuaren arabera.

**TOPONIMIAN OINARRITUTA**

Errepide kontuekin segituz, gunearen barruko komunikazioa lortzeko ere egin beharko dituzte bide berriak. Halako bati Aprendices Kalea izena ipini diote. Izenak esaten duen moduan, inguruko toponimiarekin zerikusia du aukeratutako izenak. Bestalde, Caixak eraiki behar dituen etxebizitzen ondoko kalea izango da hura.

Eta sortuko duten beste kale berri bati, berriz, Txaeta Kalea izena ipiniko diote. Hori ere inguruko toponimian oinarritutakoa dela argitu dute Kultura Sailetik.

Errepideez gainera, azalerako aparkaleku batzuk ere eraikiko dituzte.

**JOLASGUNEAK**

Eta bestelako zerbitzuen artean, aipatzekoa modukoa da, baita ere, bi jolas-gune eraikiko dituztela.

Jolasgune bat Aprendizen Eskolaren parean eraikiko dute. Zaldibarko parkearen luzapen moduan egituratu gura dute. 6 eta 13 urte bitartekoendako izango da.

Beste jolasgunea, berriz, 1 eta 5 urte bitartekoen dako izango da. Urbanizazio berriaren erdigunean eraikiko dute hori.

DATUA

**6,1**
**MILIOI EURO**

Zerrajerako lanak egiteko 6,1 milioi euro pasatxoko aurrekontua aurreikusi dute. Arrasateko Udalak 2008ko aurrekontuaren zirriborroan proposatu du 2,1 milioi euro inbertitzea aurten.



**ERAGIN TXIKIA** Suteak ez ditu arrasto larregi utzi. TXOMIN MADINA

**GERTAERAK** > SUTEA

# Sutea gertatu zen eguenean, Santa Teresako soto batean

## Horren ondorioz, hamar etxebizitzako bizilagunek gaua etxetik kanpo eman zuten

**TXOMIN MADINA** > ARRASATE

Bizilagunek kontatu dutenez, eguenean, hilaren10ean, 17:30ak eta 18:30ak bitartean konturatu ziren Santa Teresa kaleko 22. zenbakiko soto batetik kea irteten zela eta su hartu zuela. Bizilagunek deituta, suhiltzaileak, ertzainak eta udaltzainak azaldu ziren. Ordu erdi behar izan zuten sua itzaltzeko. Suhiltzaileak egubakoitzean bueltatu ziren, sutearen zergatia ikertzera. Esandakoaren arabera, baina, oraindik ezin dute ezer ziurtatu. Bizilagunek ere ez dakite ondo zergatik piztu zen sua.

**KALTE LARRIRIK EZ**

Sutearen ondorioz, ez da eraikinean aparteko kalte materialik jazo, baina eskaileretan eta etxe osoan nabariak dira sutearen arrastoak eta ke usaina. Horrez gainera,suhiltzaileek adineko emakume bat atera behar izan zuten 5. solairutik, eta ospitalera eraman zuten badaezpada, baina ezer larririk ez duela adierazi dute. Udaltzain bat ere larrialdi zerbitzuetara eraman behar izan zuten kea arnasteagatik baina kasu honetan ere ez zen ezer larria izan. Hainbat bizilagunek baina, beldurra pasa zutela adierazi dute.

Santa Teresako 22. zenbakidun eraikinean 10 etxebizitza daude. Sutearen ondorioz, bizilagunek etxetik kanpo eman zuten eguneko gaua, batzuk senitartekoen etxeetan, eta 13 lagunek, berriz, Udalak eskainitako hotelean.

**ZERBITZUAK** > UDAL KIROLDEGIA

# Mojategiko dutxak laster izango dira erabiltzeko moduan

## Kantina bat ere egingo dute, kirol klubek gestionatzeko eta haiek diru sarrerak eskuratzeko

**U.M.** > ARRASATE

Joan den irailaz geroztik zain dira Mojategiko kiroldegiko erabiltzaile asko hango aldagelak erabiltzen hasi ahal izateko. Bada, horren gainean, Iratxe Aranburuk, udal kiroldegiko teknikariak aurreratu du laster izango direla erabat erabilgarri: "Klubak laster pasako dira Mojategira, aste honetan ez bada, datorrenean. Bereizketa eginda dago. Garbiketa eta funtzionalitate kontu batzuk itxi egin behar ditugu, baina posible da. Dena den, gaur da eguna asteburuetan erabiltzen dituztela. Errugbi zein futbol klubei eta eskola kiroletik datozenei uzten diegu erabiltzen".

**BULEGOAK ETA KANTINA**

Bestalde, jakinarazi du, baita ere, gune bat egokituko dutela Mojategin kluben bulegoetarako. "Egongo da, baita ere, klubek gestionatuko duten kantina bat dirusarrerak-eta bideratuko dizkiena eta baita bilera gela orokor bat ere". Kluben bulegoak banatuko dituzte irizpide jakinen arabera.



**ALDAGELAK** Datozen egunotan erabilgarri izango dira Mojategiko aldagelak. JOSETXO ARANZABAL

**HEZKUNTZA** > INSTALAZIOEN GAINEKO AUZIA

# San Martin ikastetxeak bertan behera laga ditu mobilizazioak

Diote, besteak beste, Martinez de Iralan erabiliko duten eraikina egokitzeko lanak hasi direla, eta pozik daude


**MARTINEZ DE IRALA** Irudiko eraikinean egingo dituzte lanak. GOIENKARIA

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

San Martin herri eskolak mobilizazioak bertan behera lagatzea erabaki du. Halaxe erabaki zuten eguenean egindako gurasoen asanbladan, erredakziora egubakoitzean bidalitako oharrean azaltzen dutenez.

Oharrean gehitzen dutenez, erabaki horretarako arrazoiak hiru dira, eta delegaziotik jasotako azken berrietan oinarritu dituzte. Batetik, ikasturte honetan duten leku arazoaren behin behineko irtenbidea martxan dagoela adierazi dute. Horren harira gehitzen dute Martinez de Iralan eurendako egokituko duten eraikinean –Aranzadik gaur egun administrazio bulegoak dituen eraikina– lanak hasi direla eta aldi berean egingo direla "Aranzadik erabiltzen jarraituko duen eraikin handiko lanak".

Modu positiboan baloratu duten beste gauzetako bat da "behin betiko irtenbidea geroago eta gertuago ikusten" dutela. Eta gehitzen dute egubakoitzean, Hezkuntza ordezkaritza, Jaurlaritza eta Udalarekin egin zen bileran "Martinez de Irala zeharo husteko bukaera data finkatuko" zela. Hezkuntzakoek esan zietenez, "euren aldetik planteatuko den data 2011 izango da, asko jota".

Epe labur eta luzeko irtenbideez gain, bitarteko eperakoak ere azaltzen dituzte oharrean eta horixe izan da mobilizazioak bertan behera lagatzeko hirugarren arrazoia. Hain justu: "Udalbatzak azaroaren 26an hartutako erabakiaren arabera, martxorako proposamen bat aurkezteko konpromisoa hartu zuen. Han jasoko da epe ertainerako irtenbidea, hau da, Martinez de Iralako eraikin handiaren erabilera ikastetxe bataren zein bestearen beharraren araberakoa izatea, eraikina osorik eskuratu arte".

Amaitzeko, eman diren aurrera pausuetan konfiantza osoa jartzen dutela adierazten dute eta "2007ko otsailean azaltzen zen epea errespetatu izan balitz" ez zirela "kalera irteteko beharrean aurkituko.

**ARANZADI IKASTOLAREN IRITZIA**

Aranzadik ere eman du iritzia San Martinen adierazpenen harira. Behin behineko irtenbidearen gainean esan du Martinez de Iralan San Martinek hartuko duen eraikinean obrak ez direla hasi: "Obren gaineko prozesuan gaude. Izan ere, 2007ko abenduaren 11n jaso genuen obra proposamena Hezkuntzatik. Han iradokizunak egitera gonbidatzen gintuztenez horrela egin genuen eta oraingoz ez dugu erantzunik jaso".

Epe luzeko ibilbideari dagokionez, "ez digu Hezkuntza Sailak Martinez de Irala uzteko eperik jarri", esan dute Aranzaditik. "Guri delegatuak esan zigun epe luzeko irtenbidea gauzatu arte eraikin administratiboa bakarrik laga beharko genukeela, eta baimena izango genuela Martinez de Iralako eraikin handiko espazio guztia erabiltzeko Aranzadi osoa Seminarioan kokatu arte".

Azkenik, Aranzadik aipatu du azaroaren 26ko mozioaren harira San Martinek ematen duen informazioa ez dela zuzena, "mozioak ez duelako ezer aipatzen epe ertainaren inguruan". Eta mozioa ere hitzez hitz aipatzen du Aranzadik: "Udalak eta Hezkuntza sailak hiru hileko epean epe luzerako proposamena helaraziko die eskolei, bakoitzari berari dagokion esparruari buruzko iritzia jasotzeko eta dagokion esparruari buruzko atala adosteko".


**LUNTXA** Meza eta gero luntxa egongo da gerturatzen diren guztiendako. ARTXIBOA

**JAIAK** > SAN ANTON ABAD

# Meza izango da San Antonen eguenean, zaindariaren eguna

Ohiko igoera eta gero izango da meza, 11:00etan Murinondoko baselizan

**M.B.** > BERGARA

Eguenean, urtarrilak 17, San Anton eguna ospatuko dute Murinondoko auzotarrek. Hori horrela, ekitaldi ugari antolatu dituzte eguenerako, zein zapatu eta domekarako.

Eguenean, San Anton eguna, meza nagusia izango da 11:00etan, ermitan. Gero, salda eta txorizoa banatuko dute bertaratu diren herritarren artean eta erromeria ere izango da.

**ASTE BUKAERAN GEHIAGO**

Aste bukaeran ez dira faltako urteroko hitzorduak. Batetik, zapatuan, 21. Mus Txapelketa jokatuko da, Zubiberri sagardotegian, 16:00etan. Izenematea ordubete lehenago egingo da leku berean. Izenematea da 12 euro.

Domekan, krosaren 31. ekitaldia jokatuko da, 12:00etan eta 12:30ean, herri kirolen erakustaldia eta euskal dantzen saioa ikusteko aukera egongo da. Umeendako jolasak ere egongo dira.

MAPFRE
BERGARA
ZATOZ, ZURE ZERBITZURA GAUDE

**Gabonetako zozketako irabazlea**
Angel Perez Diez
**Zenbaki saritua:** 381
**Saria:** Ospe haundiko ardo sorta eta gordetzeko armairua
IBARGARAI 5 BERGARA
Tel.: 943 76 28 79

**INAUTERIAK** > KARTEL LEHIAKETA

# Ruben Montero bergararrak eroan du Inauterietako kartel lehiaketako saria

Epaimahaiari "originala, freskoa eta ezberdina" iruditu zaie Monteroren kartela. Guztira sei lan jaso dituzte

**M.B.** > BERGARA

Udaleko Kultura sailak antolatutako Inauterietako kartel lehiaketak badu irabazlea: Ruben Montero bergararra, hain justu. Hala, Monteroren diseinua izango da aurtengo Inauterietarako kaleratuko duten egitarauaren azala jantziko duena. Sari gisa 300 euro jaso ditu.

Sarituaren lanak pailazo aurpegia erakusten du eta haren alboan gorri koloreko hainbat hitz. Hitzok, Inauterietan oso ohikoak diren gauzak adierazten dituzte: farra, jaia, lagunak...

Epaimahaia osatu dute Kultura batzordeko kideek eta erabaki dute Monterorena saritzea "originala, freskoa eta ezberdina" iruditu zaielako.

Bestalde, aurreko urteetan baino lan gutxiago jaso duten arren, lanen maila ona nabarmendu dute.



Kartel irabazlea. RUBEN MONTERO

**KIROLA** > IKASTARO BERRIAK

# Zerbitzu berriak eskainiko ditu Zubikoa kiroldegiak datozen asteotan

Besteak beste, body balance-ko ikastaro berria, erditze osterako gimnasiako talde berria, eta master class saio berriak iragartzen dira martxora arte

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Urte hasieran kirola egiteko asmoa duten lagunei erantzuna emateko asmoz, E-Goitek Kirol Zerbitzuak eta Zubikoa kiroldegiak kirol eskaintza zabala jarri du erabiltzaileen eskura. Hala, irailean hasitako ikastaroetarako osagarriak diren master class saioak eta ikastaro berriak iragartzen dituzte, besteak beste.



**FIT BIKE** Argazkian, fit bike saioko une bat. GOIENKARIA

**BERRIKUNTZAK**

Ikasturte hasieran martxan jarritako body pump eta body combat, batuka, pilates terapeutikoa, erditze osteko gimnasia eta fit-bike ikastaroek jarraipena izango dute. Hala, hainbat taldetan tokia dago oraindik, mantentze gimnasian, batukan, fitnes gelako programa zuzenduetan, eta, pilates eta fit-bike-eko talde batzuetan, besteak beste.

Halaber, urtarrilerako, otsailerako eta martxorako ikastaro eta talde berriak osatzeko asmoa dago. Alde batetik, body balance, body pump eta body combateko koreografia berriak landuko dira; eta, bestea alde batetik, erditze osterako gimnasiarako talde berria osatuko da.

Gainera, fit-bike-an hasi gura dutenendako hastapen ikastaroak emango dira.

**AHOLKULARITZA ZERBITZUA**

Zubikoak eskaintzen dituen ikastaroetako arduradun batek zerbitzuen inguruko informazioa emango du egun zehatz batzuetan: urtarrilak 28an eta martxoak 10ean, 20:15etik, 21:15era; eta, urtarrilak 29an, otsailak 26an eta martxoak 11n, 18:30etik, 20:00etara. Hala, egun horietan, bakoitzaren galderei erantzuten ahaleginduko da.

**MASTER CLASS SAIOAK**

Egun bateko master class saioak ere eskainiko dira. Goiko taulan ikus daiteke master class saio bakoitza zein egunetan izango den, eta zer landuko den.

## Master Class saioen egunak

**Fitbike-Pump, urtarrilak 11**
Bi ekintzak konbinatuz, besoak, bularra eta enborra tonifikatzeko aukera egongo da. Guztia musikaren erritmoarekin eta bi monitoreen laguntzarekin.

**Bosua, urtarrilak 25**
GMaterial berria ezagutu eta aprobetxatzeko BOSUarekin koreografia bat egiteko aukera egongo da. Halaber, tonifikazioa eta oreka ariketak egingo dira.

**Fit-bike, otsailak 1**
Susana irakaslearekin txirrinduaritzako etapa baten simulazioa. Ibilbidearen perfila orri batean marraztuta egongo da.

**Step, otsailak 15**
GBi irakasleren artean emango dute ordu bateko klasea.

**Pirineotako etapa, otsailak 29**
Fit-bike-eko mendiko saioa izango da.

**Master fit-bike, martxoak 14**
Hainbat monitorek emandako bi orduko saioa: aste santuko oporrak hartu aurreko erronka.

**ANTZERKIA** > SANTA ANA ANTZOKIAN

# 'Nos vamos de viaje' antzezlanerako sarrerak gaurtik aurrera salgai, Pake Lekun

Ikusi-Makusi taldeak lan berriaren hirugarren emanaldia eskainiko du egubakoitzean, Santa Ana antzokian

**M.B.** > OÑATI

Azaroan erretiratuendako bakarrik, eta abenduaren 21ean herritar guztiendako egindako emanaldietako arrakasta ikusita, Pake Leku erretiratuen elkarteko Ikusi-Makusi antzerki taldeak, hirugarren lanaren emanaldi berri bat iragartzen du egubakoitzerako.



**IKUSI-MAKUSI** Argazkian, taldeko kideetako batzuk. ARTXIBOA

Hortaz, *Nos vamos de viaje* antzezlana ikusi nahi dutenendako gaur bertan jarriko dira salgai sarrerak, erretiratuen elkartean bertan. Hala, gaurtik eguenera, arratsaldeko seietatik zortzietara, salgai jarriko dira sarrerak hiru eurotan. Astean zehar Pake Lekun saltzen ez diren sarrerak barikuan, lehiatilan bertan salduko dira.

**ELKARTASUNA** > NUBI ELKARTEA

# 'Piztu itxaropena' kanpaina egubakoitzean bukatuko da

Saharar herriari laguntzeko kanpainan atun latak, azukrea, konpresak eta dilistak batzen dihardute herriko hainbat denda eta eskoletan

**M.B** > OÑATI

Nubi Elkarteak antolatuta Sahararen Aldeko IV. Euskal Karabanarako materiala batzeko kanpaina, egubakoitzean bukatuko da. Hala, Oñatiko hainbat denda eta eskoletan Tindufeko kanpamendura bidaltzeko materiala biltzen dihardute.

**EGUBAKOITZERA ARTE**

Udaletxeko Gizarte Zerbitzuen bidez *Piztu itxaropena* kanpainaren berri herriko hainbat denda eta ikastetxe guztietara zabaldu da. Hala, urtarrilaren 8tik hainbat material jaso dute, Errekalde auzoko Matea dendan, Bidebarrietako Dian, San Migel Koperatiban, Super BMn eta Eroskin.

Herriko ikastetxe batzuetan, Errekalde Herri Eskolan eta Txantxiku Ikastolan, gaurtik, egubakoitzera arte batuko dute materiala. Hala, ikasleen bidez, atun latak, azukrea, dilistak eta konpresak eroan daitezke eskoletara.

Materiala biltzeko kanpaina bukatu ondoren, jasotako guztia Bergarara eramango da Tindufera bidaltzeko.



**EGUTEGIA** Udala egunotan banatzen ari den egutegiaren irudia. ARETXABALETAKO UDALA

**ARETXABALETA**> 2008KO EGUTEGIAK

# Egutegia banatzen ibili dira aste bukaeran

## Dantzariak dira aurtengo edizioko protagonistak; garai batekoak eta baita gaur egungoak ere

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA
Egutegi berria jaso izan dute egunotan etxean aretxabaletar gehienek. Udalak joan zen egubakoitzean hasi zen aurtengo egutegiak banatzen eta asteburuan zehar zeregin horretan ibili dira. Bada, auzoetara beranduago iritsiko direla esan du Kultura teknikari Inma Migelek, korreo bidez bidaliko dira-eta baserrietara. Guztira, 3.300 egutegi banatuko direla ere aipatu du.

Dantzariak dira protagonistak aurtengo egutegian. Loramendi dantza taldearen laguntza izango dute hori osatzeko. Urtarrilean dantza taldekoak azaltzen dira. Ondoren, hainbat dantzen irudia agertzen dira, aspaldikoak eta baita egungo dantzariekin. Azken orrian, muntaia bat dago.

**'ARRATABE' ALDIZKARIA**
Bestalde, *Arratabe* udal aldizkariaren bigarren alea prestatzen hasi dira dagoeneko. Kultura zinegotzi Lore Martinezek esan du hilaren 24an banatuko dela. Lehenengo alea joan zen abenduaren 22an iritsi zen etxeetara.

**ARETXABALETA** > ANTZERKIA

# Pirritx eta Porrotxen emanaldia hilaren 26an

## *Eskerrik asko!* antzezlana ikusteko sarrerak hilaren 21ean jarriko dira salgai

**M.B.** > ARETXABALETA
Pirritx eta Porrotx pailazoen azken ikuskizuna ikusi ahal izango dute datorren urtarrilaren 26an etxeko txikienek. Aretxabaletako Kirol Etxean izango da bikotea, *Eskerrik asko!* izeneko antzezlana aurkezten.

Mari Motots ere Aretxabaletan izango da. Bada, oraingoan ez du mototsik izango, gaixorik dago-eta; minbizia du. Sendatzeko botikak ilea erorarazten dio. Hala, ile kizkurrak berriro atera bitartean, koloretako zapia janzten du buruan eta piratetara jolasten da Joxe piratarekin.Pirritx eta Porrotx pailazoek Mari Mototsi bisita egingo diote ospitalean. Dantzan ikasteko astia izango dute guztiek han.

*Eskerrik asko!* ikusteko sarrerak aurretik eskura ahal izango dira. Hilaren 21ean jarriko dira horiek salgai Kirol Etxean.


GOIENKARIA

# Barriketanekoen hitzaldia

**Aretxabaletako Barriketan egitasmokoek Asisko Urmenetaren hitzaldia izan zuten joan zen astean. Ordubete pasatxo egon zen Urmeneta hizkera informalaren gainean berba egiten euskaldun berriekin. Oso gustura egon zirela jakinarazi dute. Goiko irudian hitzaldian parte hartu zutenak agertzen dira.**


**BATZARRA** Olazar erretiratuen elkartekoek batzarra izan zuten eguenean. Irudian, aurreko batzar bat. IKER BARANDIARAN

**ESKORIATZA** > ERRETIRATUAK

# Olazar pozik dago iazko ekimenekin

## Extremaduran zortzi egun emango dituzte erretiratuek, apirila eta maiatza bitartean

**M.B.** > ESKORIATZA
Olazar erretiratuen elkarteak batzar orokorra egin zuen joan zen eguenean, Kultura Etxean. Hara 50 lagun inguru joan ziren eta bilera amaitzean txokolatea jan zuten erretiratuek. Elkarteko presidente Pedro Mari Armendarizek batzarrean "giro ona" egon zela esan du eta "protestarik ez zela izan" azpimarratu du.

Lehenik eta behin, iaz egindako ekimenen balorazio positiboa egin zuen Armendarizek. "Urtea oso ondo joan da. Lana egin dugu; bada, egindako guztia merezi duela uste dugu", azaldu du. Ekonomikoki ere urte ona izan zela aipatu du. Hala, 79.000 euroko aurrekontua aurreikusita zegoela gogora ekarri du.

Maiatza aldean Italiara egindako bidaia azpimarratu du. Zortzi egunetan toki esanguratsuenak bisitatzeko aukera izan zuten 48 eskoriatzarrek. "Asko ibili bagenuen ere, izugarri gustatu zitzaigun bidaia", adierazi du Armendarizek. Urria aldera, berriz, Asturiasen egon ziren erretiratuak.

**EGUN BATEKO IRTEERAK**
Bidaia horrez gain, egun bakarreko hainbat irteera ere egin izan zituzten Olazarrekoek. Besteak beste, Calahorran, Iratxen, Elizondon, Lekeition, Donostian eta Bilbon izan ziren. Sagardotegian ere egon ziren. Azken horren harira, aurten ere sagardotegira joango direla esan du Armendarizek. Apirilean egingo dute berriro esandako irteera hori.

Beste hainbat bidaia ere aurreikusita dituzte dagoeneko erretiratuek. Hala, apirilaren amaieran, Extremadurara joango dira. Zortzi egun igaroko dituzte han. Hotela Plasencian izango dute eta handik toki aipagarrienak bisitatuko dituztela esan du.

IRIARTE
Umeen denda
•
Helduen lentzeria

Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA



**OINEZKOENDAKO** Salbador kalea oinezkoendako egokitzeko lanen lehen pausuak emango dituzte gaur. ARTXIBOA

**ANTZUOLA** > OBRAK

# Salbador kalekoen bilera eguenean egingo dute

## Bizilagunak eta Udaleko ordezkariak udaletxeko osoko bilkuren aretoan elkartuko dira, 19:00etan

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ELGETA
Eguenean egitekoak ziren Udaleko ordezkariak Salbador kaleko bizilagunekin batzarra. Batzar horretan azaltzekoak ziren kalea oinezkoendako ipintzeko egin beharreko lanen nondik norakoak: epeak, garajeen erabilera, lanek bizilagunei sor diezazkieken eragozpenak, obren gaineko zalantzak argitzeko informaziorako telefonoa...

Batzarra bertan behera geratu zen hileta elizkizuna zela-eta. Hortaz, herritarrei jakinarazi nahi diete eguenean, urtarrilaren 17an, izango dela bilera, 19:00etan udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

**LANAK GAUR HASIKO DIRA**
Aurrez jakinarazi bezala, gaur, astelehena, ziren hastekoak Salbador kaleko lanak. Lanik handienak oraindik ez dira hasiko, baina horiek gertatzeko aurrez beste lantxo batzuek egin beharra dago eta horiei ekingo diete. Hala ere, oraingoz Salbador kalea ez dutela itxiko aurreratu digu Elgeta 21eko teknikari Edorta Silvak.

Salbador kaleko lanik handienak hasi aurretik, kalean bertan ez ezik beste toki batzuetan ere egin behar dituzte beste hainbat lantxo eta besteak beste hori da oraindik kalea trafikoarendako ez ixteko arrazoietariko bat.

**LANAK GAUR HASIKO DIRA**
Lanen artean dago esaterako, arkutik frontoirako eta San Roke kalerako uren kanalizazioa. Arkuan eta inguruan lanean dihardute bitartean ibilgailuak ezingo dira bertatik igaro, hortaz, trafikoa Salbador kaletik bideratu beharko dute lanek iraun bitartean. Data zehatzik ez badakite ere lanak aste honetan edo hurrengoan hastea da asmoa.

**ELGETA** > UDALA

# Udalean duten zinegotzi kopuruaren arabera jasoko du talde politiko bakoitzak dirua

## Zinegotzi bakoitzak, orain arte bezala, 90 euro jasoko du hilean; batzorde buru izan ala ez kopurua berdina izango da guztiendako

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ELGETA
Abenduko osoko bilkuran ez bezala urtarrilekoan adostu dituzte zinegotziendako eta alderdiendako diru kopuruak. Urtarrilaren 2an PSE-EEko zinegotzia udalbatzarrean izan ez bazen ere, gainontzeko ordezkariek aho batez onartu zuten Ogasun batzordearen bigarren proposamena. Zinegotziei eta udal taldeei eman beharreko diru kopurua murriztea zen proposamena eta neurri txikian bada ere gutxitu dute: 22.680 eurokoa izango da gastua; lehen baino 582,24 euro gutxiago. Murrizketa handiagoa zen lehen proposamenean, gastua 21.780 eurokoa baitzen.

**ZINEGOTZIEK BERDIN**
Zinegotzi bakoitzak jaso beharrekoa lehengoan mantenduko da: hilean 90 euro. Hasierako asmoa zen zinegotziei ordaindu beharrekoa pixka bat jaistea, 75 eurora, alegia; eta batzorde buruen kopurua igotzea 105 eurora, horrela batzordeetako arduradunen lana nolabait saritzeko. Baina asmo horrek ez du aurrera egin.

**UDAL TALDEEK PROPORTZIONALKI**
Bestalde, aldatuko da udal taldeek jasoko duten diru kopurua, orain proportzionala izango delako. Izan ere, orain arte urtean 1.540 euro jasotzen zituen talde bakoitzak, baina hemendik aurrera Udalean duten zinegotzi kopuruaren araberakoa izango da jaso beharrekoa.

Hortaz, EAEk jasoko ditu 2.945 euro urtean; EAJk, 1.767 euro; 1.178 euro Zutik-EB-A ralar taldeak; eta 589 euro PSE-EEk.

**ARAMAIO** > ORIXOL MENDI ELKARTEA

# Herriko iturri, zubi eta karobiak aztertuko dituzte

## Orixol elkarteak argazki erakusketa egingo du iturri, zubi eta karobien egoera erakusteko

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO
Aramaioko Orixol Mendi Elkarteko kideak argazkilari lanetan dabiltza azken asteotan. Ateratako argazkiekin erakusketa berezia osatu nahi dute; herriko iturri, zubi eta karobien argazkiak jasoko dituen erakusketa, hain zuzen ere. *Aramaioko ondarea berreskuratzen* izango da erakusketa horren izena.

Orixol Elkartekoek bi helburu bete nahi dituzte erakusketa berezi horrekin. Alde batetik, herritarrei Aramaioko iturri, zubi eta karobien egoera zein den erakutsi, eta bestetik, euren kokalekua eta izena gogorarazi. Horretarako, erakusketan, argazki bakoitzak fitxa txiki bat izango du aldamenean eta bertan zehaztuko da iturriaren izena, kokalekua eta egoera.

Diapositiba emanaldi bat ere prestatzeko asmoa badaukate erakusketan bertan jartzeko. Horrez gain, garai batean karea nola egiten zen azaltzen duen bideo bat ere egongo da ikusgai.

Oraindik zehazteke dago erakusketa noiz izango den. Materiala biltzen ari dira orain. Baina Orixol Elkartetik adierazi dute seguruenik urtarrilaren amaiera edota otsailaren hasierarako bukatuta izango dutela lan guztia.



**ONDAREA** Zubi, iturri eta karobien erakusketa egingo dute. ARRITXU BARRUSO

**LEINTZ GATZAGA** > ITURBURUAK

# Iturburuen gainean kezkatuta Udala

## Maroto basoko iturburuak ur gutxi ematen duela jakinarazi dio Udalak Aldundiari, baina konponbide garestia du arazoak

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA
Orain dela urtebete lehortu zuten Lapikozuluetako iturburua autobideko lanek. Gaztainuzketako mendi etxeak hornitzen zituen urez iturburu hark, eta Maroto basoko iturburutik jasotzen dute ura orduz gero. Uda partean, baina, arazoak izan zituzten ez zuelako behar beste ur ematen, eta zisterna-kamioian ekarri behar izan zuten.

**HIRU KONPONBIDE GARESTI**
Udala oso kezkatuta dago gaiarekin eta horren berri eman zioten Aldundiko arduradunei. Hiru irtenbide aurreikusi dituela jakinarazi zien: ur biltegia egitea; herriko ur-hornidura saretik eroatea Gaztainuzketara; edo inguruko mendian beste iturburu bat topatu eta handik bideratzea.

Udalak onartzen du ez duela konponbide samurra arazoak. Batetik, urik ez badago biltegia alferrik egingo dutelako, eta bestetik, Gaztainuzketa ez dagoelako herrian, Gatzagainen baizik. "Hirurak dira garestiak, baina eurek lehortu ziguten iturburua, eta konponbidea behar dugu", esan digu Eusebio Villar alkateak.

# Kirola



**> FUTBOLA**
UDAk eta Mondrak irabazi egin zituzten etxeko partiduak **> 16-17**



**> SASKIBALOIA**
Mondragon Unibertsitatea eta Eskoriatza bolada onean **> 18**



**> ZIKLOKROSA**
Jone Muxika hirugarren Espainiako txapelketan **> 19**



**> ELKARRIZKETA**
Xabier Infante *Artza* Aloña Mendiko igeriketa entrenatzailea **> 21**



**HITZ KALBEA** Argazki oinaaaaaaaaaaaaa. ARTXIBOA

**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETAKO

# Azken segundura arte sufritu zuen Bergarak derbian

Bergarak 27-26 irabazi zion Ford Mugarriri zapatuan, Labegaraietako kiroldegian

Partiduko azken aukeran, berdinketan gola baliogabetu zion epaileak Josu Herrero arrasatearrari

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Asko sufrituta irabazi zuen Bergarak zapatuan Ford Mugarriren aurka jokatutako derbia. Hamabost minuturen faltan lortu zuen etxekoek partiduko abantailari handiena (18-12), eta Labegaraietan bildutako zaleek partidua erabakita zegoela uste bazuten ere, arrasatearrek ez zuten etsi eta azken minutura arte estutu zuten aurkaria. Partidua bi aldiz berdintzera iritsi zen Beñardo Balerdiren taldea (25-25 eta 26-26). Orduan etorri ziren etxekoen larritasunak, eskuan zuten garaipen bat ihes egingo ziela sumatzen hasi zirenean. Baina Aitor Aldanondo beteranoak indarrez eta amorruz egindako jokaldi bati esker, partiduko azken gola egin zuen eta bergararrek eraman zuten derbia. Intentsitate handiz jokatutako partidua izan zen zapatukoa. Alde bateko eta besteko jokalariek ikuskizun ederra eskaini zuten, zaleen gozamenerako.

**BI ZATI NAHIKO EZBERDINAK**

Partidua hasi aurretik, Ford Mugarri zen faboritoa partidua eramateko, sailkapenari errepasatuta behinik behin. Hala ere, Josetxo Muniategiren jokalariek gorago egoteko moduko taldea badutela erakutsi zuten zapatuan. Lehen zatian erraz nagusitu zitzaien arrasatearrei, lau goleko abantaila lortu zutelarik (12-8 eta 13-9). Azkenik, 13-10 emaitzarekin amaitu zen lehen zatia. Bisitarien partetik, nabarmentzekoa Jon Lonbide eta Josu Herrero jokalarien lana. Jon Kapelastegi atezain bergararrak geldiketa bikainak egin zituen eta bigarrenean aritu zen Jon Errastiren lana ere erabakigarria izan zen. Izan ere, etxekoen defentsa izan zen bi puntuak eskuratzeko gakoetako bat.

Arrasatek ez zuen partidua galdutzat eman eta azken ordu laurdenean 9-14ko partziala lortu zuten. Azken bost minutuak nahasiak izan ziren: etxekoak urduri eta kanpokoak ausart. Epaileak bi kanporatze adierazi zizkion Bergarari (Josu Agirrerena eta Ruben Sanchezena, azken hau oso protestatua). Jokin Alberdik lortu zuen Arrasatekoen bigarren berdinketa (26-26) eta Xabi Altzelai kanporatua izan ondoren, Aldanondok erabaki zuen partidua. Partidua amaitzear zela, Herrerok gola lortu zuen, baina marra zapaltzeagatik gola baliogabetu zuen epaileak, etxekoen pozerako.

ESANAK

**"Defentsan dezente hobetu dugu azken partiduetan eta horrek beste sendotasun bat eman digu"**
**Josetxo Muniategi** > Bergara

**"Hasieran defentsan eta erasoen gaizki ibili gara eta ondorioz partidu osoan markagailuan atzetik joan gara"**
**Beñardo Balerdi** > Ford Mugarri

**PREFERENTE MAILA** > UDA-VASCONIA

# Garrantzitsuak ziren hiru puntu etxean geratu ziren

Lau partidu jarraian galdu eta gero, beharrezkoa zen garaipena lortu zuten Igor Arenazaren mutilek




**ERIK GARTZIA** Gartziak ederki banatu zuen jokoa partidu guztian zehar. JOSETXO ARANTZABAL

UDA
**2-0**
EHU VASCONIA

**UDA** > Elgarresta, Sanchez, Garai, Leonardo, Gonzalez, Lopez, Orueta (Rodriguez, 60. min.), Igartua (Arana, 87. min.), Arriaga (Gomez, 77. min.), Eriko (David Espinosa, 75. min.) eta Iban Espinosa (Agirre, 77. min.).

**Vasconia** > Moraza, Sanchez (Utiel, 8. min.), Ziganda (Ayerra, 75. min.), Madariaga, Otamendi (Gomez 73. min.), Lopez (Barrio, 71. min.), Ibañez, Feijoo (Arizmendi, 46. min.), Gomez, Dueñas eta Peña.

**Epailea** > Ulazia jauna. Partiduan zehar bost txartela atera zituen.

**JASONE ZABALA** > ARETXABALETA

Hiru puntu garrantzitsu lortu zituen atzo UDAk Vasconiaren aurka. Gogotsu hasi zen etxeko taldea, zelaian ondo ipinita; Vasconiak aldiz, hotz hasi zuen partidua, ez zen norgehiagokan sartu lehen zati erdira arte. Joko aldetik, etxeko taldea nagusi zen hasierako minututan, eta horrela 3. minutuan, UDAren eraso on batean epaileak ez zuen ikusi UDAko jokalari bati egindako penalti garbia. Erik Gartzia kapitaina ohi baino aurrerago jarri zuen Igor Arenaza entrenatzaileak, eta baloia ongi banatzen zuen zelai erdira etorrita. Hala, partiduaren ordu laurdena bete zenean, korner jaurtiketa baten ondorioz, lehen gola sartu zuten etxekoek. Golegilea Iban Lopez izan zen. Partiduak lehen zati honetan berdin jarraitu zuen, Vasconiak ez zuen jokorik erakusten eta UDAk kanpotarren hutsak aprobetxatuz kontraeraso asko egin zituen. Etxekoak partidua apurtu nahian, bigarren golaren bila joan ziren, eta hala, 23. minutuan, Vasconiako Dueñas jokalariak area barruan baloia eskuarekin jo zuen eta epaileak penaltia adierazi zuen. Etxekoen bigarren gola etorri zen; Arriagak ez zuen barkatu. Lehen zatiaren amaieran, beste aukera batzuk izan zituzten etxekoek, baina halaxe amaitu ziren lehen 45 minutuak.

**BIGARREN ZATIAN UDA LO**

Bigarren zatiak bazirudien beste itxura bat izango zuela. Etxekoak lo atera ziren, eta kanpotarrek erasora jo zuten eta aukerak sortzen hasi ziren. Hala, bigarren zatiko 26. minutuan, Vasconiak izan zuen aukera garbi bat, baina ez zuten aterik ikusi. Partiduko 65. minutuan, etxekoen entrenatzaileak Erik Gartzia aldatu zuen, eta hemen galdu zuen UDAk ordura arte zelai erdian izandako kontrola. Hortik aurrera, kanpotarrak behin eta berriz saiatu ziren erasoko jokaldietan, baina ezin izan zituzten aukerak gauzatu. Horrela, lau porrot jarraian jaso eta gero, UDAk 2 -0eko emaitzarekin nagusitu zen, merezimendu osoz gainera. Garaipen garrantzitsua, dudarik gabe.

Datorren astean, derbia izango dute aretxabaletarrek Azkoagainen, Aloña Mendiren aurka, eta hori beste kontu bat izango da.

**PREFERENTE MAILA** > 18. JARDUNALDIA

# Nagusitasun osoz irabazi zuen Mondrak Mojategin



**GOLEGILEA** Argazkian, Mondrako Iker Lopez baloiarekin. Aurrelariak lehenengo gola egin zuen zapatuan. JOSETXO ARANZABAL

MONDRA
**3-0**
IDIAZABAL

**Mondra** > Mikel, Andoni, Loiti, Laspiur, Arazkonaga, Ruben, Keixi (Gotzon, 78. min.), Julen (Aranbarri, 80. min.), Altzola (Maikel, 66. min.), Iker (Luna, 76. min.) eta Ekain (De Luis, 90. min.).

**Idiazabal** > Gomez, Galparsoro, Valor, Argiñano, Garmendia, Altuna (Hergedas, 61. min.), Urreta, Zabaltza (Esnaola, 64. min.), Loidi (Urkia, 74. min.), eta Iurrita (Tena, 46. min), eta Imaz.

**Epailea** > Azpilikueta jauna. Bost txartel hori atera zituen zapatuko partiduan: Calvo eta Loiti arrasatearrek eta Idiazabalgo Garlparsoro, Iurrita eta Tenak ikusi zuten txartela.

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Hirugarren garaipena jarraian lortu zuen Mondrak zapatuan Idiazabalen kontura. Hiru gol ikusi ziren Mojategin baina askoz gehiago egiteko aukera garbiak izan zituen Igor Gordobilen taldeak. Hala, hiru puntuak poltsikoan, Mondra seigarren da sailkapenean, 28 punturekin.

**KONTROLA**

Mondraren eta Idiazabalen arteko lehiako hasierako minutuak nahiko parekatuak izan ziren; bada, etxekoek azkar hartu zioten neurria lehiari, eta goitik behera menderatu zuten –Idiazabalek lehen jaurtiketa 20. minutuan egin zuen–. Hala, markailuan abantaila hartu aurretik, Mondrak aukera garbiak izan zituen; bada, lehen gola 28. minutuan egin zuen Iker Lopezek, Keixik egindako falta erdiraketa bat errematatu ostean. Handik aurrera, etxekoek joko polita egin zuten; eta, atsedenaren aurretik bigarren gola egiteko aukera oso garbiak izan zituzten Iker Laspiurren eta Julen Herizen errematetan. Bada, huts egin zuten.

**BIGARREN ZATIA**

Norgehiagokak ez zuen aldaketarik izan atsedenaren ondoren. Ekainek egin zuen etxekoendako bigarrena 67. minutuan, Andonik egindako jokaldi eder baten ondoren. Lehia bukatzeko hamar minutu falta zirenean, Maikelek borobildu zuen markagailua hirugarren golarekin.

**PREFERENTEA** > AURRERA ONDARROA-ALOÑA MENDI

# Hiru gol egin arren, esku hutsik etorri zen Aloña Ondarroatik

Bigarren itzuliko lehen partiduan, oñatiarrek ez zuten punturik eskuratzerik izan Ondarroan (4-3)

Ondarroak partidua eraman zuen, azken minutuan epaileak asmatutako penalti bati esker



**JOANEKOA** Argazkian joaneko partiduko irudi bat. Orduan bana berdindu zuten Aloñak eta Aurrerak. ARTXIBOA

**GOIENKARIA** > BERGARA
Bigarren itzuliko lehen partiduan, oñatiarrek ez zuten punturik eskuratzerik izan Ondarroan zapatuan. Hiru gol egin arren, esku hutsik etorri zen Josu Zubiaren taldea. Epailearen lanak ere izan zuen zerikusia horretan, azken minutuan penalti oso eztabaidagarri bat adierazi baitzuen Aurrera Ondarroaren alde. Iker Olaldek baloia eskuarekin ukitu zuen, baina areaz kanpo izan zela zirudien. Bizkaitarrek ondo aprobetxatu zuten epaileak egindako oparia eta 4-3koa jarri zuen Badiolak markagailuan.

**HIRU PENALTI PARTIDUAN**
Ez zen partiduko penalti bakarra izan: hiru penalti adierazi zituen epaileak, horietako bat oñatiarren alde. Unai Arriolak binakoa jarri zuen markagailuan bigarren zatian. Aurretik, lehen zatian, 0-1 irabazten joan zen Aloña, Asier Ugarteren gol bati esker. 75. minutuan gol ederra egin zuen Ugartek berriz, Unai Arrolarekin bikain konbinatu ondoren. Defentsan egindako huts baten ondorioz hirunako emaitza egin zuen Aurrerak, partidua bukatzeko zortzi minutu falta zirela.

Eta 44. minutuan iritsi zen lehen aipatutako jokaldia: etxekoen arean ikusi ez zituen faltak (bi penalti eskatu zituen Aloñak) beste aldean adierazi zuen epaaileak. Partidua irabazteko merituak egin zituen Aloñak, baina gauza jakina da futbolak ez duela beti joko ona saritzen.



JOSETXO ARANTZABAL

## Garaipena gertu izan arren, puntu bakarra

Zapatuan UDAk eta Gazteak taldeek jokatutako partidua bana amaitu zen. Etxeko taldea aurreratu zen Uleziaren golari esker, baina kanpotarrek partidua berdindu egin zuten. Norgehiagoka amaitzeko bost minuturen faltan, penalti bat izan zuen alde UDAk, baina Garikoitz Dublanen jaurtiketa atezainak gelditu zuen. Sailkapenean goian dagoen UDAk, 2.erregionaleko Mondra izango du aurkari datorren asteburuan.

> 1. ERREGIONALA

## Oiartzunera egindako bisitan balio handiko puntuak ekarri zituen Bergarak (0-1)

Partidu serioa jokatuta, hiru puntuak ekarri zituen Bergarak Oiartzunetik. Imanol Cabanillasek egin zuen mahoneroen gola, bigarren minutuan. Eta 30. minutuan epaileak Cabanillas bera kanporatu zuen; protestak errepikatzearen txartel gorria ikusi zuen bergarar aurrelariak. Aurretik, bigarren gol bat egin zuen, baina epaileak baliorik gabe utzi zuen.

Jokalari bat gutxiagorekin jokatu arren, Bergarak defentsa sendoa egin zuen eta Manu Diaz entrenatzailea pozik zegoen bere jokalariek agertutako jarrerarekin. Seigarren postuan da Bergara eta etxean bi partidu jarraian izango ditu orain, Elgoibar eta Rotetaren aurka .

> 1. ERREGIONALA

## Zortzi minturen faltan penaltiz lortu zuen berdinketa Lazkaok Antzuolan

Partidua irabazteko faboritoa zen Antzuola baina puntu bakar batekin konformatu behar izan ziren Azkargortaren mutilak. Partidua etxekoen alde jarri zen berehala, Jon Gurutz Godoik estrategiako jokaldi bat ederki amaitu ondoren. Jarraian partidua erabakitzeko aukera garbiak galdu zituzten etxekoek.

Bigarren zatian, emaitzari eutsi nahirik, zertxobait atzera egin zuten antzuolarrek eta Lazkaok berdinketa lortzeko gogor egin zuen. Jokalari bat gutxiagorekin, bisitariak berdintzeko gauza izan ziren, epaileak penalti garbi bat adierazi ondoren. Ondoren epaileak talde bakoitzeko jokalari bana kanporatu zituen eta banakoarekin amaitu zen neurketa.

## emaitzak eta sailkapenak

### PREFERENTE MAILA

**Sailkapena**

| | Puntuak | JP |
|---|---|---|
| 1. **Real Union** | **38** | 18 |
| 2. **Trintxerpe** | **34** | 18 |
| 3. **Ordizia** | **32** | 18 |
| 4. **Berio** | **31** | 18 |
| 5. **Aurrera Ondarroa** | **30** | 18 |
| 6.**Monndra** | **28** | 18 |
| 7. **Euskalduna** | **26** | 18 |
| 8. **Hernani** | **25** | 18 |
| 9. **UDA** | **25** | 18 |
| 10. **Aloña** | **23** | 18 |
| 11. **Hondarribia** | **23** | 18 |
| 12.**Vasconia** | **22** | 18 |
| 13. **Idiazabal** | **21** | 18 |
| 14. **Anaitasuna** | **21** | 18 |
| 15. **Zumaiako** | **18** | 18 |
| 16. **Eibartarrak** | **17** | 18 |
| 17. **Zestoa** | **17** | 18 |
| 18. **Touring** | **14** | 18 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Hernani-Eibartarrak | 1-2 |
| Berio-Zumaiako | 2-0 |
| Ordizia-Hondarribia | 1-2 |
| Euskalduna-Real Union | 1-1 |
| UDA-Vasconia | 2-0 |
| Aurrera-Aloña | 4-3 |
| Touring-Zestoa | 0-0 |
| Mondra-Idiazabal | 3-0 |
| Trintxerpe-Anaitasuna | 2-0 |

**Hurrengoak**

Homdarribia-Berio
Real Union-Ordizia
Vasconia-Euskalduna
Aloña-UDA
Zestoa-Aurrera
Idiazabal-Touring
Anaitasuna-Mondra
Eibartarrak-Trintxerpe
Zumaiao-Hernani

### BESTELAKOAK

**LEHENENGO ERREGIONALA**

| | |
|---|---|
| Antzuola-Lazkao | 1-1 |
| Oiartzun-Bergara | 0-1 |

**BIGARREN ERREGIONALA**

| | |
|---|---|
| Ikasberri-Mondra | 2-1 |
| Urki-BTLS | 2-3 |
| UDA-Gazteak | 1-1 |
| Elgeta-Eibartarrak | 0-3 |

**OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Anaitsauna-UDA | 0-0 |
| Hondarribia-Bergara | 0-2 |

**OHOREZKO GAZTEAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Elgoibar | 3-3 |
| Tolosa-Mondra | 1-0 |

**LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK, IGOERA FASEA**

| | |
|---|---|
| Lasarte Oria-UDA B Arizmendi | 1-1 |

**OHOREZKO KADETEAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Ordizia-Aloña Mendi | 1-1 |
| Bergara-Real Union | 2-1 |

**LEHENENGO MAILAKO KADETEAK, IGOERA FASEA**

| | |
|---|---|
| Arrasate-Trintxerpe | 10-0 |
| UDA B-Sto Tomaz Lizeoa | 2-1 |

**OHOREZKO INFANTILAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| UDA Arizmendi-Kostas | 0-1 |
| Bergara-Lagun Onak | 3-1 |

**OHOREZKO INFANTILAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Arrasate-Hondarribia | 6-4 |

**EMAKUMEZKOAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Zarautz-BTLS | 1-4 |

**LEHENENGO MAILA** > 12. JARDUNALDIA

# Hirukoek eta Alartziaren lanak apurtu zuten partidua

## Igoera faserako puntuagarria zen garaipena lortu zuen MU-k Tabirako talde durangarraren aurka, 98-92



**GORKA ALARTZIA** Partiduko saskiratzaile nagusia izan zen; 21 puntu egin zituen Iturripeko norgehiagokan. JOSETXO ARANTZABAL

OINTXE-ARRASATE
**98-92**
TABIRAKO

**Ointxe-Arrasate** > Hernandez (7), Biain (8), Alartzia (21), Quintana (8), Peña (6), Atxa (4), Gamarra (19), Imanol Zeziaga (3), Mallabiabarrena (17) eta Arejolaleiba (6).

**Tabirako** > Menika (25), Iturbe, Onaindia (21), Igartza (2), Astorquia (15), Gurrutxaga, Amesti (9), Agirre (2), Gonzalez (3), Astarloa (12), Agirre eta Unamunzaga (3).

**Laurdenetako emaitzak** > Lehenengo laurdena: 30-14. Bigarren laurdena: 57-40. Hirugarren laurdena: 74-66. Laugarren laurdena:98-92.

**JASONE ZABALA** > ARRASATE

Igoera faserako oso garrantzitsua zen partidua irabazi zuen Mondragon Unibertsitatea taldeak Durangoko Tabirako taldearen aurka. Sei puntuko aldearekin (98-92) nagusitu ziren etxekoak zapatuan Iturripen . Hasieran MU hasi zen agintzen, eta Tabirako taldeari kosta egin zitzaion partiduan sartzea. Markagailuan abantaila hartzen hasi zen etxeko taldea, eta lehen laurdenaren amaieran 16 puntuko aldea zuen (30-14). Bigarren laurdenean, etxeko entrenatzaileak aulkitxoko gizonak mugitu zituen eta MUk intentsitatea jaitsi zuen. Hala eta guztiz ere, Alartziak ederki gidatu zuen taldea. Orduan hasi ziren durangarrak joko hobea eskaintzen, nahiz eta markagailuan zegoen diferentzia ez zen murriztu (57-40).

**TABIRAKOREN ERREAKZIOA**

Bigarren zati hasieran, Tabirakok 0-8ko partziala egin zion MUri, gainera zonakako defentsan jarri ziren durangarrak. Tabirakok puntuak lortzeko zuen beharrak etxekoak kutsatu zituen eta azkarregi jokatzen hasi zen; ondorioz, huts egiteak egin zituzten etxekoek. Laurden honetan, 8 puntura hurbildu ziren durangarrak, eta etxekoak berriz ere lanean jarri ziren. Arrasatearren partetik, Quintana jokalaria lau falta pertsonalez aulkitxoan eseri zuen entrenatzaileak, baina hor agertu ziren Alartziaren eta Gamarraren eskumutur finak eta baita beste taldekideen lana ere. Hirugarren laurdena 74-66 amaitu zen. Laugarren laurdenean, MU partidua kontrolatzera atera baina durangarren presioak ez zien uzten etxekoei partidua behin betiko apurtzen. Gainera, Quintanak bosgarren falta egin zuen. Azken hiru minutuetan ikusi zuten etxekoek garaipena esku eskura zutela, nahiz eta azken momentura arte lan egin behar izan zuten. Etxekoen partetik saskiratzaile nagusia Alartzia izan zen, 21 punturekin. Menika durangarrak 25 egin zituen. Garaipen honekin, Merinoren mutilek sendo jarraitzen dute sailkapeneko lehen postuan.

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA** > 11. JARDUNALDIA

# Partidua aise irabazi zuen Eskoriatzak eta lider berria da



**LABORDA** Bera izan zen saskiratzaile nagusia, 29 punturekin. JOSETXO ARANTZABAL

ESKORIATZA
**69-10**
TECNUN

**Eskoriatza** > Rozas (4), Laborda (29), Gomez (3), Eriz (2), Alartzia (4), Salaberria (2), Carreras (2), Exposito (13), Soriano (8), eta Sologaistoa (2).

**Tecnun** > Santos (2), Rodriguez (5), Gabilondo (2), Errazkin (13), Frances (1), Larrañaga, Iriondo, Irazusta, Zamarron eta Iparragirre.

**Laurdenetako emaitzak** > Lehenengo laurdena: 13-2. Bigarren laurdena: 35-3. Hirugarren laurdena: 51-8. Laugarren laurdena: 69-10.

**JASONE ZABALA** > ESKORIATZA

Partidua erraz irabazi zuten zapatuan Intxaurtxuetan Eskoriatzako neskek. Sailkapenean garaipen bakar batekin behe aldean dagoen Tecnun donostiarrei gailendu zitzaien, 69-10.

Donostiarrak sei jokalarirekin etorri ziren Eskoriatzara, eta hasieratik zonakako defentsa egin zuten. Eskoriatzarrak aldiz, hasieratik hasi ziren kantxa guztian presioa egiten. Honela, etxekoek lortutako lehen partziala 11-0koa izan zen.

**SASKIRATZE BAKARRA JOKOAN**

Eskoriatzarrek kontraeraso asko eginez lortu zituzten puntuak, eta donostiarrek aldiz, ezer gutxi erakutsi zuten partidu guztian zehar, eta jokoan saskiratze bakarra lortu zuten, eta beste guztiak, jaurtiketa libreen eremutik. Etxekoek, nahiz eta markagailuan zuten abantaila handia izan, intentsitate berdinarekin jarraitu zuten amaiera arte. Aipatzekoa, Olatz Laborda jokalariak egindako lana, 29 puntu sartu baitzituen, hauetatik sei hiruko marratik. Garaipen honekin, eskoriatzarrak sailkapeneko lidergoan jartzen dira, hamar partidu irabazi eta bat galduta. Datorren astean, Donostiako Internacional taldearen aurka izango dute partidua.

## emaitzak

MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **LEHENENGO MAILA** | |
| MU-Tabirako Baque | 98-92 |
| **GIPUZKOAKO LEHENENGO MAILA** | |
| Coaatg-Candy BKE | 88-65 |
| MU-Novamark | 52-45 |
| Kostkas-Aloña Mendi | 84-49 |
| **SENIORRAK EMAKUMEZKOAK** | |
| Eskoriatza-Tecnun | 69-10 |
| **JUNIOR GIZONEZKOAK** | |
| Aloña Mendi-Bretaña Berg. | 57-41 |
| **JUNIOR EMAKUMEZKOAK** | |
| Bergara-STL Lazkao txiki | 60-26 |
| Internacional-Eskoriatza | 50-68 |
| **KADETE GIZONEZKOAK** | |
| MU C-BKL | 57-77 |
| MU B-STL Lizardi | 93-42 |
| MU A-Caldereria Zaher | 68-60 |
| **KADETE EMAKUMEZKOAK** | |
| Arizmendi Esko.-Antigua | 19-39 |
| Aloña Mendi-Añorga | 17-101 |
| Añorga-Mariaren Lagundia | 24-47 |
| **INFANTIL GIZONEZKOAK** | |
| Salleko-Arrasate Insitu. | 108-21 |
| Arizmendi Ikastola- Aloña Mendi | 76-32 |
| GSB Acero-Bergara | 61-17 |
| **INFANTIL EMAKUMEZKOAK** | |
| LEK B-Iragaz | 8-61 |
| LEK D-Bergara | 25-10 |
| LEK A-TMariaren Lagundia | 29-19 |
| LEK E | Atsedena |

**ZIKLOKROSA** > BURGOSEN PODIUMERA IGO ZEN ELGETARRA

# Jone Muxika hirugarren sailkatu da Espainiako ziklokros txapelketan

Ruth Moll txapeldunarekin eta Rocio Gamonalekin igo zen podiumera Elgetako txirrindularia

Halaber, Jone Muxika, Espainiako txapeldun izan zen erreleboka Euskadiko selekzioarekin

**MIREIA BIKUÑA** > ELGETA

"Oso pozik eta gustura nago egin dudan lanarekin. Sasoi puntu onean etorri naiz txapelketara, eta nire helburua bete da". Hala erantzun zigun Jone Muxikak zapatu arratsaldean Burgoseko Villarcayon jokatutako Espainiako txapelketako proba bukatu ondoren.

Lasterketa ona egin ondoren, brontzeko domina jantzi zuen. Harekin batera, Ruth Moll txapelduna eta Rocio Gamonal igo ziren podiumera.




**PODIUMA** Argazkian, ezkerretik eskuinera, Rocio Gamonal, Ruth Moll txapelduna eta Jone Muxika elgetarra. AMAIA AGIRRE

**GAKOA, IRTEERAN**

Zapatu goizean euria egin zuen arren, emakumezkoen lasterketa hasterako ez zuen euririk egiten. Edozelan ere, ibilbideko tarte batzuetan lokatza zegoen. Hala, ibilbidean bost itzuli egin zituzten, guztira 3.000 metro egiteko.

Bada, zapatuko probako gakoa irteeran egon zen."Irteera txarra egin dut. Ez dut arriskatu nahi izan", azaldu zigun Muxikak, "irten eta segidan jaitsiera bat zegoen. Hala, erorketaren batean ez egoteko, lasai irten naiz. Bada, Ruth Mollek eta Rocio Gamonalek aurrera egin dute".

Hortaz, Jone Muxikak lehia estua izan zuen hirugarren tokia eskuratzeko. Elgetako txirrindulariarekin, Aida Nuño asturiarrak, eta Isabel Castro galiziarrak borrokatu zuten brontzeko domina eskuratzeko.

"Lehenengo itzulia oso txarra izan da, zazpigarren tokian nengoen-eta; bada, handik aurrera nire burua hobeto ikusi dut eta lehian egon naiz Nuñorekin eta Castrorekin". Txapelketa bukatzeko bi itzuli falta zirenean utzi zituen Muxikak atzean bi aurkariak. Hala, 47 segundo aurretik sartu zen helmugan Elgetako txirrindularia. Haien aurretik, urrezko domina eskuratzeko lehia Mollen eta Gamonalen artean egon zen. Bi txirrindulariak eskutik iritsi ziren helmugara; bada, urrezko domina Ruth Mollek jantzi zuen.

**ERRELEBOKA, URREZKOA**

Aste bukaeran Burgosen jokatu den Espainiako txapelketako berrikuntza erreleboka jokatutako proba izan zen. Selekzio bakoitzean kadete, junior, emakume, beterano, elite eta 23 urtez azpikoen ordezkari bana lehiatu zen.

Euskadiko selekzioko ordezkariak izan ziren: Jone Muxika, Jon Mazaira, Felipe Cotera, Iñigo Quintano, Gorka Izagirre eta Unai Yus. Hala, Euskadiko txirrindulariek urrezko domina jantzi zuten; Asturias eta Kantabriako selekzioak sailkatu ziren hurrenez hurren, bigarren eta hirugarren tokietan.

Erreleboka jokatu zen lasterketako lehenengo bi errelebotan Euskadi lehenengo tokian pasa zen; bada, hirugarren itzulian, Asturiasek aurrera egin zuen. Hala, azken bi itzulietan lehia gogorra egon zen Euskadi, Asturias eta Kantabriaren artean. Gorka Izagirrek eta Unai Yusek egin zituzten Euskadirendako azkeneko bi erreleboak. Azken itzulian, Yusek ez zuen arazorik izan lehenengo tokian sartzeko.

## Zigor Urain arrasatearra 27. tokian sailkatu zen elite mailako proban

Villarcayon jokatutako Espainiako ziklokros txapelketan, Debagoieneko beste ordezkari batzuk ere egon ziren: Zigor Urain, Felix Zugasti eta Iñigo Roldan elite mailan, eta Xabier Arantzeta, kadete mailan.
Atzo goizean jokatu zen elite mailako lasterketan "maila ona" erakutsi zuten ibarreko ordezkariek: Urainek 27. tokian bukatu zuen, Roldanek, 31. tokian eta Zugastik, 54. lekuan. Hirurak pozik zeuden bukaeran. "Gure maila eman dugu, eta oso pozik gaude", esan ziguten, "kontutan hartu behar da sailkapeneko lehenengo hamar sailkatuak profesionalak direla. Jose Antonio Hermida irabazlea, Isaac Suarez eta Javier Ruiz de Larrinaga, beste maila bateko txirrindulariak dira ". Espainiako txapelketako zirkuitua ezagutzen zuten ibarreko ordezkariek. "denboraldi hasieran egon ginen hemen, hortaz ezagutzen genuen, eta ibilbide polita da. Halaber, zapatu goizean euria egin arren, gaur siku zegoen".

**LASTERKETA** > MENDIKO MARATOIA

# Zegama-Aizkorri maratoiko izenematea, gaurtik aurrera

Europako txapelketa izango da maiatzaren 25eko Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren VII. ekitaldia

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Gaur bertan zabaltzen da maiatzaren 25ean jokatuko den Zegama-Aizkorri mendi maratoian parte hartzeko izenemate epea. Bada, izena, internet bidez bakarrik eman daiteke, urtarrilaren 25era arte.

**ZOZKETA**

Izena emateko modu bakarra *www.zegama-aizkorri.com* orrian dagoen formularioa betetzea da. Halaber, telefonoz edo posta elektronikoz egiten diren eskaerak ez dituzte onartuko.

Urtarrilaren 25ean izenematea bukatu ondoren, zozketa bidez 175 dortsal banatuko dituzte. Hala, zozketa Zegamako udaletxean egingo da, otsailaren 15ean. Egun bat beranduago zabalduko da behin betiko izenemate epea. Hortaz, dortsala duten korrikalariek diru sarrera egin beharko dute Kutxako kontuan, eta ordain agiriaren kopia bidali beharko dute Zegamako udaletxera. Behin betiko izenematea egiteko epea martxoaren 31n bukatuko da.

**EUROPAKO TXAPELKETA**

Maiatzaren 25ean jokatuko da mendi maratoiko VII. ekitaldia, eta aurtengo edizioa Skyrunning European Championship izango da. Halaber, 400 korrikalarik izango dute parte hartzeko aukera. Hala, antolakutza taldeak, 100 dortsal konpromisoei aurre egiteko gordeko ditu. Era berean, ekitaldi guztietan parte hartu duten korrikalarien, eta azken bi ekitalditan denbora onenak izan dituztenen parte hartzea bermatzeko, antolatzaileek beste 125 dortsal gordeko dituzte.

**OÑATI**

# "Eskubaloian beste kiroletan baino gol gehiago lortzen dira"

**KANTXA URDINA** Kiroldegiko kantxa berdean ez ezik, kantxa urdinean ere jokatu ziren beste hainbat partidu

**ESKUBALOIA** Zortzi minutuko lau zatiko partiduak jokatu zituzten 3. mailako neska mutikoek zapatuan kiroldegian

**BESTE KIROL BATZUK** Eskubaloiaz gain, saskibaloia, areto futbola eta 7ko futbolean ere aritu ziren neska-mutikoak

JASONE ZABALA > OÑATI

Zapatu goizean zuten hitzordua Oñatiko Zubikoa kiroldegian, eskubaloian lehiatu behar ziren 3. mailako neska-mutikoak. Zapatua izan arren, irrikan zeuden lehiatzeko.

Hala, Zubikoako kantxa urdina bi zatitan banatu zuten: batean, katuak eta erbiak taldeko neskak, eta bestean jirafak eta sugeak. Bi norgehiagokatan 3. mailako neska aritu ziren.

Eskubaloiko partiduak sei jokalarirekin jokatzen dira eta guztira zortzi minutuko lau zati jokatzen dira. Talde bakoitzean, entrenatzaile bat egoten da, normalean guraso bat izaten da, eta astetik astera txandakatuz joaten dira.

Honetaz gain, koordinatzaile lanetan, Borja Moiua izan genuen zapatuan Oñatin, eta epaile lanetan herriko eskubaloi taldeko jokalariek ere lagundu zuten. Harmailetan, guraso asko joan ziren norgehiagoken gora beherak ikustera, eta neska- mutiko asko urduri zeuden.

**BEDERATZIGARREN JARDUNALDIA**

Aste honetakoa bederatzigarren jardunaldia izan da Oñatiko neska -mutikoentzat. Astebururo kirol ezberdin bat egiten dute, eta aste honetan eskubaloia egokitu zaie. Eskubaloiaz gain, areto futbola, 7ko futbola eta saskibaloian ere aritu ziren Oñatiko neska mutikoak, futbolean Ibarrako zelaian aritu ziren, eta areto futbola eta saskibaloia kiroldegiko kantxa berdean egin zuten.



JASONE ZABALA

**Katuak.** Helene, Aiora, Inma, Maria, Leire, Jone eta Amaia. Zazpi *katu* dira taldeko kideak.



JASONE ZABALA

**Erbiak.** Jone, Arrate, Ane, Uxue, Amaia, Goreti eta Leire agertzen dira argazkian.



JASONE ZABALA

**Jirafak.** Nerea, Desiree, Nagore, Irati, Jone, Nagor eta Iratik osatzen dute taldea.



JASONE ZABALA

**Sugeak.** Goiko irudian, Saioa, Ane, Nagore, Itziar eta Guadalupe, Sugeak taldeko kideak.

## ZER DA ESKUBALOITIK GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUENA?



**Leire, Maria eta Inma**
Katuak

Golak sartzea da Oñatiko hiru neska hauei gehien gustatzen zaiena. "Beste kirol batzuetan ez da hain erraza golak sartzea" esan digute. Paseak egitea ere asko gustatzen zaie. Pozik zeuden hiru neskak partidua irabazi zuten eta.



**Paula, Jone eta Desiree**
Jirafak

"Futbolean baino gutxiago gustatzen zaigu eskubaloian jokatzea. Gehien gustatzen zaiguna, golak sartzea da, errazago lortzen baitira eskubaloian. Orokorrean baina, beste kirolekin konparatuz arauak errazagoak dira eskubaloian".



**Jon Arantzabal eta Jon Aiastui**
Aratz

Bi oñatiar gazte hauei gehien gustatzen zaiena eskubaloiko jaurtiketak egitea da. Jon Arantzabali baina gehien jokalari moduan egotea gustatzen zaio. "Eskubaloian errazago sartzen dira golak".



**Xabi eta Unai**
Katabera

Atezain izatea gustatzen zaie gehien. Gainera gol gehiago ere sartzen dira, eta taldekoek hobeto kontrolatzen dute kirol hau beste edozein baino. Orokorrean baina, kirol denak dituzte gustuko.



**Ander, Erik eta Xabier**
Urbia

"Atezain izatea da gehien gustatzen zaiguna. Gainera eskubaloian golak errazago sartzen ditugu eta gehiago. Futbolean adibidez, gehiago kostatzen da golak egitea, eta kirola politagoa den arren, golak ez dira hainbeste izaten".

*Hartza* bezala ezagunagoa, Xabier Infante gasteiztarra, 1984an etorri zen Oñatira. Gaztetan, igerian eta errugbian ibili zen arren, igeriketa aukeratu zuen afizio eta ofizio bezala, orain dela 41 urte. Harrezkero igerilekuan egin ditu bizitzako ordu gehienak. Aloña Mendiko entrenatzailea izateaz gain, Zubikoako monitorea eta soroslea ere bada.

**Xabier Infante *Hartza*** > Igeriketa monitorea

# "Igerilari ona izateko beharrezkoa izaten da teknika ondo menderatzea"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

**Ibarrean, hiru elkarte ditugu igeriketan: Aloña Mendi, Bergara eta Arizmendi. Xabier Infante *Hartza* Aloña Mendiko entrenatzailea da; Zubikoan izan gara berarekin, gaur egun igeriketak ibarrean bizi duen egoeraz berba egiteko.**


Xabier Infante *Hartza* Oñatiko Zubikoa igerilekuan, egubakoitzean ateratako argazkian. JOSETXO ARANTZABAL

**Zer da zuretzat igeriketa?**

Bizitza da. Nire gustuko gauza da; igerilekuan ordu mordoa ematen ditut, baina, hala ere gustura egoten naiz. Aukera izan nuen, behin, hezkuntza munduan sartu edo igerileku batean hasteko eta, garbi izan nuen zer zen egin gura nuena. Gainera, nire ustez, hezkuntzan ibiltzeko beste modu bat da. Izan ere, neska-mutikoekin harremanetan egoteko aukera ematen dit igeriketak.

**Zenbat urte daramazu igeriketa munduan?**

41 urte dira igeriketan hasi nintzela. Gasteizen hasi nintzen; arratsalde batez, entrenamendu bat ikusten nengoela, entrenatzailea hurbildu zitzaidan eta ea gustuko nuen galdetu zidan. Ez nekiela erantzun nion, eta, orduan, probatu egin nuen. Ordutik, igeriketa munduan nabil. Waterpoloa ere probatu dut; eta epaile, entrenatzaile… denetarik egin dut.

**Oñatin, Aloña Mendiko entrenatzailea izateaz gain, igerilekuko irakaslea ere bazara?**

Momentu honetan, sorosle bezala ordu gutxi egiten dut; gero, irakasle bezala ibiltzen naiz eskoletako neska-mutikoekin. Eskolakoekin goiz partean egoten naiz; gero, arratsaldean, eskola kirola egiten dugu. Eta, bi eta hiru urteko neska mutikoekin ere ibiltzen gara.

**Zein da zure lana Aloña Mendi elkartean?**

Guztira 115 lagun dabiltza Aloñan; horietatik, 35 lagun inguru daude federatuta. Gero, kirol eskolan beste 45 lagun daude eta baita txikiak ere. Lehen eskolatik etortzen ziren ume guztiak nik hartzen nituen. Orain, beste bi irakasleren laguntza daukat; Xabier Murguzur eta Janire Urteaga. Janirerekin zazpi, zortzi eta bederatzi urteko umeak egoten dira. Gainontzekoek, gurekin entrenatzen dute. Goizetan, 30 igerilari inguru etortzen dira entrenatzera eta besteak arratsaldez etortzen dira.

**Ze ezaugarri hartu behar dira kontuan igerilari on bat osatzeko?**

Igeriketan, oso garrantzitsua da teknika lantzea. Igerilari on bat izateko, barruko igerian egitea da landu behar dena. Bestalde, gauza mordoa landu behar dira; alde aerobikoa, esaterako. Indarra ere landu behar da, guk gimnasioan egiten dugu, edo baita igerilekuan. Besoak, hankak… denetarik landu behar da.

Igeriketa, kirol osoena dela esaten dute; dena lantzen da, besoak, hankak, lepoa, burua, abdominalak… Gero, dena lotu behar da; hau da, batzuk hankak ondo mugitzen dituzte eta beste batzuk besoak. Garrantzitsua, guzti hori ondo lotzea da; orduan, igerilari on bat aterako dugu.

**Nagusiei edo gazteei, nortzuei da samurragoa igerian erakustea?**

Akatsak daudenean, oso zaila da akats horiek jende nagusiei kentzea. Baina, lortu daiteke. Adibidez, astean bitan triatloikoak etortzen dira, entrenamendu zehatzak egitera, teknika lantzeko. Baina, akatsak kentzea zaila izaten da. Neska-mutikoekin, askoz samurragoa izaten da. Oraindik, finkatu barik dute ohiturak; hortaz, samurragoa da.

EZAUGARRIAK

**"Igeriketan oso garrantzitsua da teknika ondo lantzea; gero, indarra dago"**

IGERILEKUA

**"Gaur egun, Oñatiko igerilekua oso txiki geratu da; jende asko ibiltzen da igerian"**

ONURAK

**"Kaxa torazikoa lantzeko oso kirol egokia da; baita artrosia atzeratzeko ere"**

**Zeintzuk dira igeriketak dituen onurak?**

Kaxa torazikoa lortzeko, aerobikoki, oso kirol egokia da igeriketa, zalantzarik ez; azken finean, uretan zaudenean presio konkretu bat daukazu gorputz osoan, eta horrek on egiten du kaxa torazikoa lantzeko. Kanpoko kirolean baino gehiago indartzen da igerian kaxa. Gero, besoak, hankak, burua, lepoa… dena martxan dago. Artikulazio arazoetarako ere ona da; artrosia atzeratzeko, oso kirol ona da igeriketa.

**Nolako entrenamenduak egiten dituzue?**

Nagusiek egunero entrenatzen dute, astean sei egunetan. Batzuk, berriz, astean bitan entrenamendu bikoitza egiten dute. Momentu honetan, Gipuzkoako talde gehienekin konparatuta gutxien entrenatzen dugunak gara. Arrazoiak, alde batetik, goizez entrenatzen dugula da. Goizeko 6:15ean sartzen gara igerilekura; baina, 8:00etarako eskolan egoten dira gazte horiek. Arratsaldean, berriz, ez dago lekurik. Igerileku guztia beteta daukagu; aurreko batean, esaterako arratsaldeko 17:30ean 57 pertsona zeuden igerilekuan. Gaur egun, txiki geratu zaigu Oñatiko igerilekua.

Bergarako, Tolosako eta beste herrietako instalazioak ikusten dituzu eta askoz handiagoak dira, 10 kaletakoak. Gainera, askoz jende gutxiago dabil igerileku horietan. Arrasaten, Legazpin… ez da jende asko ibiltzen. Oñatin, berriz, jende mordoa ibiltzen da; igerilekuan, denborarekin, giro berezia sortu da. Ez da sortu berria, aurretik datorren zerbait da

**Igerileku berriaren beharra ikusten duzu?**

Igerileku berria ez dakit, baina begira gaude ea posible den daukagun igerilekuari beste hiru kale gehitzea. Ez dakit obra zelakoa izango litzatekeen; baina, igerilekua mantenduz, badago aukera kale solteak jartzeko. Aurrez egindako piezak dira; gero, lotu besterik ez dira egin behar.

Mesfidantza handia daukat udalak dituen kirol asmoei buruz; izan ere, ez dut ikusten kirol politikarik dagoenik. Baina, ez bakarrik hemen; gimnasioan, Ibarran, Azkoagainen… toki guztietan. Dirua? Aterako dute, beste gauza batzuk egiteko atera duteeta. Gainera, uste dut kirola hezkuntza dela.

**Ze txapelketa antolatzen duzue?**

Gure asmoa, beti izan da Gipuzkoako txapelketaren bat antolatzea, baina, gure igerilekuan ez dago lekurik horrelako ezer antolatzeko. Harmailarik ere ez dugu. Hortaz, etxeko txapelketak antolatu izan ditugu. Garrantzitsuena, Txantxiku saria izaten da, alebin eta benjamin mailan Gipuzkoako talde onenak etortzen dira.

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

# Hedabide guztietarako

# telefono berria eta bakarra

# 943 25 05 05

Goitb Goiena Telebista
Asteleheneko Goienkaria
Goienkaria
FM 107.7 Arrasate Irratia
Goiena.net Debagoieneko Interneteko ataria



**> KANTARI**
Oraingo astean GOITBn emitituko diren 11 taldeetako kantariak **> 26**



**> GURE TALDEAK**
Arrasateko Numen taldeak bere hirugarren diskoa, kaleratu du **> 27**



**> TELEBISTA**
Iñaki Elortza Euskadi Irratiko Kirol zuzendaria elkarrizketatu dugu **> 29**




**AKZIOA** Irudian, zapatu goizean Bedoñako paint-ballean jolasean aritutako lagun bat. JOSETXO ARANZABAL

**PAINT-BALL**

# Abenturazko film bateko protagonistak egun batez






**PAINT-BALL GUNEA** Benetako soldaduak izango balira bezala aritu ziren Arrasateko gazteak Bedoñako paint-ball gunean.
JOSETXO ARANZABAL

**PAINT-BALL** > BEDOÑAKO GUNEA ZABALIK DAGOENEKO

# Abenturazko film bateko protagonistak egun batez

**LAGUNARTEAN**
Lagun artean ondo pasatzeko leku aproposa da Bedoñako paint-ball gunea

**GERRA ZELAI**
Zuhaitz eta trintxera artean, benetako gerra zelaia dirudi Bedoñako basoak

**ARRITXU BARRUSO** > ARRASATE

Basoan, metrailetak, trintxerak, tiro hotsak eta kea. Edozein gerratako eskenatokia izan zitekeena, beraz. Desberdintasun bakarra da, kasu honetan, metrailetek benetako balak izan beharrean pinturaz betetako bolatxoak dituztela. Bedoñako paint-ball guneaz ari gara hizketan. Dena dela, aitortu beharra dago, zapatuan bertara joan ziren gazteek nola jokatu zuten ikusita benetako gerra zelaia zirudiela hark.

Arrasateko hamalau lagun elkartu eta Bedoñako paint-ball gunera joan ziren, zapatuan, goiza pasatzera. Eguraldia eskas xamarra eta tarteka euri zaparrada batzuk. Baina horrek ez zituen jokalariak kikildu. Bertako arduradunak jokoaren arauak azaldu ostean zelaira, gerrara, irten ziren guztiak euren metrailetak eskuan hartuta. Talde berdea alde batetik eta beltza bestetik.

Bedoñako paint-ball gunea hiru zelaitan dago banatuta eta zelai bakoitzean joko desberdinak egiteko aukera dago. Jokoak, beti ere, pertsona kopuruaren arabera antolatzen dituzte. Helburua, ordea, beti berdina; beste taldeko kideak jo, pinturaz zikindu, eta gerra zelaitik ateratzea. Eskuak altxatu eta buru makur jolas zelaitik irteten joaten dira guztiak poliki-poliki.

Hiru hilabete dira Bedoñako paint-ball gunea zabaldu zutela eta bertako arduradun Iker Garairen hitzetan oso lanpetuta ibili dira azken bi hilabete hauetan. "Lehenengo hilabetea lasaia izan zen. Jendeak oraindik ez zeukan paint-ball gunearen berri. Baina azken bi hilabete hauetan lan asko izan dugu. Aste bukaerero izan dugu jendea, goizez eta arratsaldez".

Adin guztietako jendeak joka dezake paint-ballean. Hala ere, 18 urtetik beherakoak arduradun batekin joan beharko dira jokatzera. Prezioa 25 eurokoa da pertsonako eta 100 tiro egiteko aukera ematen du horrek. Metraileta berriz betetzeak 6 euro balio du. Prezioaren barne daude, gainera, edariak eta baita salda beroa ere.

Akziozko pelikulak eta bideo jokoak gustuko dituztenek, egun batez, abenturaren protagonistak izan nahi badute Bedoñako paint-ball gunera gerturatu besterik ez daukate.

PAINT-BALLEAN JOKATU DUTE



**Asier Otadui**
Arrasate

Oso ondo pasatu dugu. Itzela izan da. Aurpegia pinta-pinta eginda amaitu dut jokoa. Aitortu behar da, baina, neketsua ere badela. Ni, behintzat, nekatu egin naiz zelaian gora eta behera.



**Iban Espinosa**
Arrasate

Hona natorren bigarren aldia da eta bietan ere oso ondo pasatu dut. Lagun artean jolasteko eta barre batzuk egiteko oso aproposa da. Gaurkoa ikusi ostean, hilabetean behin etortzea erabaki dugu.



**Gorka Clemente**
Arrasate

Beste paint-ball gune batzuetan ere izan naiz, bost bat bider, eta egia esan Bedoñako hau da orain arte ikusi dudan onena. Materiala oso ondo dago; armak, trajeak, zelaia bera...

# ABY KEM

DANBAKA))))) LEHIAKETAKO I. EDIZIOKO IRABAZLEA

## DISKO BERRIA ZURE ESKU




CDa: **10 euro**

Asteleheneko Goienkariako harpideduna bazara: **8 euro**

**Eskaera egiteko deitu:** 943 25 05 05 telefonora.
**ordutegia:** 9:30-13:30 eta 15:00-18:30 edo bidali e-posta: idazkaritza@goiena.com helbidera.

Nahi baduzu 3 euroren truke, etxera eramango dizugu.

Kantari Debagoienean

# Saioen emanaldiak GOITBn



**NOIZ >** Urtarrilaren 15ean. **ORDUA >** 20:15ean. **TALDEA >** Arantzazu Jauregialtzo eta Maria Baltzategi. **HERRIA >** Oñati. **ADINA >** 8 eta 9 urte. **ABESTIA >** *Sarri, sarri.*



**NOIZ >** Urtarrilaren 15ean. **ORDUA >** 20:15ean. **TALDEA >** Ainize Arrazola, Ane Irigoien eta Olatz Baladron. **HERRIA >** Oñati. **ADINA >** 10 urte. **ABESTIA >** *Atalaia.*



**NOIZ >** Urtarrilaren 15ean. **ORDUA >** 20:15ean. **TALDEA >** June Ugarte eta Leire Zelaia. **HERRIA >** Oñati. **ADINA >** 9 eta 10 urte. **ABESTIA >** *Nere herri.*



**NOIZ >** Urtarrilaren 15ean. **ORDUA >** 20:15ean. **TALDEA >** Leire Ariztimuño, Lide Fernandez eta Sophia Morales. **HERRIA >** Oñati. **ADINA >** 9 urte. **ABESTIA >** *Itxaropena.*



**NOIZ >** Urtarrilaren 15ean. **ORDUA >** 20:15ean. **PARTE-HARTZAILEA >** Aitor Urrestarazu. **HERRIA >** Oñati. **ADINA >** 10 urte. **ABESTIA >** *Iñaki.*



**NOIZ >** Urtarrilaren 17an. **ORDUA >** 20:15ean. **TALDEA >** Irati Aperribai, Maddi Alberdi eta Sara Alvarez. **HERRIA >** Aretxabaleta. **ADINA >** 9 urte. **ABESTIA >** *Amets bat.*



**NOIZ >** Urtarrilaren 17an. **ORDUA >** 20:15ean. **TALDEA >** Ander Beitialarringoitia eta Josu Abanzabalegi. **HERRIA >** Eskoriatza. **ADINA >** 8 urte. **ABESTIA >** *Katuen testamentue.*



**NOIZ >** Urtarrilaren 17an. **ORDUA >** 20:15ean. **TALDEA >** Josu Irure eta Xabier Toledo. **HERRIA >** Aretxabaleta. **ADINA >** 9 urte. **ABESTIA >** *Lau teilatu.*



**NOIZ >** Urtarrilaren 17an. **ORDUA >** 20:15ean. **TALDEA >** Ainhoa Gonzalez, Irati Iglesias, Maider Bastardo eta Maite Aizpurua. **HERRIA >** Eskoriatza. **ADINA >** 10 eta 11 urte. **ABESTIA >** *Nirekin.*



**NOIZ >** Urtarrilaren 17an. **ORDUA >** 20:15ean. **TALDEA >** Ander Lopez, Jokin Altuna eta Unai Lopez. **HERRIA >** Aretxabaleta. **ADINA >** 9 urte. **ABESTIA >** *Aitormena.*



**NOIZ >** Urtarrilaren 17an. **ORDUA >** 20:15ean. **TALDEA >** Sara Agiriano, Ainhoa Gallastegi, Maialen Gallastegi eta Alazne Miguelez. **HERRIA >** Eskoriatza. **ABESTIA >** *Festarik festa.*




NUMEN

# "Jarraitzaile dezente ditugu mundu osoan sakabanatuta"

Arrasateko Numen taldeak izen bereko disko berria kaleratu du; orain arteko lanik "bortitzena" da adituen ustez

Eskola zaharreko ukitua duen black metal estiloko musika egiten du laukote arrasatearrak, baina, taldearen ezaugarriak galdu barik

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

**Lagun "berezi" baten laguntza izan du Numen taldeak azkeneko diskoa grabatzeko. Bateria jotzaile barik ibili da azken hilabeteotan, bada, burugogor, kalean dute hirugarren diskoa, orain arte egin duten "bortitzena", adituen esanetan.**

**Hasteko, taldearen izena jarri diozue diskoari. Bada, zergatik Numen?**

Numen hitzak esanahi asko ditu, jainko paganoa, besteak beste. Hala. gure filosofia eta musikarako izen aproposa dela iruditu zitzaigun.

**Erosten duenarendako, nolako diskoa da?**

Gure betiko musika entzungo du: black metal zuzen eta bortitza. Hori bai, eskola zaharreko ukitu asko ditu diskoak, baina Numen taldeak dituen ezaugarriekin.

**Adituek diote *Numen* diskoa, egin duzuen bortitzena dela. Hala da?**

Duda barik, bai. Aurretik egin ditugun diskoetan gure soinua landu dugu, eta urte haietako emaitza da gure azken lana.

**Diskoa grabatzeko, bateria lanetan lagun "zahar" baten laguntza izan duzue. Bateria jotzaile bat topatzeko arazoak izan dituzue?**

Eta eskerrak *Ametsgaiztoren* laguntza izan dugun; egia esan, lan dotorea egin du. Bada, lan kontuengatik ezin ditu zuzeneko emanaldiak gurekin egin. Hortaz, denborak esango digu zuzenekoak egitera noiz itzuliko garen.

Guk lantzen dugun musika estiloak fisiko ikaragarria, eta teknika eta abiadura handiak eskatzen ditu, besteak beste. Hortaz, zaila da ezaugarri guztiak betetzen dituen bateria jotzailea topatzea, halako maila duten lagun gutxi daude-eta. Halaber, bateria jotzailea da, dudarik gabe, gure estiloko talde batek duen elementurik garrantzitsuena.

Gure arazoari irtenbidea emateko sesioko bateria jotzaile bat ekarri genuen Kataluniatik, bada, gure abestiak jotzeko abiadurak jaistea eskatzen zigun, eta etxera bidali genuen.

**Arrasaten baino hemendik kanpo ezagunagoak zarete. Hala da?**

Bai, argi dago zein den gure inguruan dagoen kultur musika, baina guri bost axola! Mexikoko talde batek gure aspaldiko kanta baten bertsioa egiten du, eta guretzat pozgarria da.

Baina, Arrasaten gure musika giroan lau katu besterik ez gaude. Hori bai, jarraitzaile dezente ditugu munduko toki ezberdinetan sakabanatuta.

**Azken lana Goi Musik diskoetxearekin egin duzue. Nolako harremana dago zuen artean?**

Harreman ona dugu. Orain arte disko guztiak diskoetxe berdinarekin egin ditugu. Bada, azken diskoaren banaketa, Euskal Herrian, Espainian eta Portugalen Goi Musikek egin du. Leku hauetatik kanpora banaketa egiteko beste diskoetxe baten bila gabiltza.

**Taldeak hamar urte bete zituen iaz. Aldaketa asko egon dira hasieratik?**

Hamar urteko bidean taldeko hainbat kide aldatu dira. Aurreko diskoa kaleratu bezain pronto, Karlos bateria jotzaileak taldea utzi zuen. Halaber, Unaik ere taldea utzi zuen. Hortaz, lau pertsonen artean osatu dugu azken lana, eta ez da erronka erreza izan.

Edozelan ere, taldean aldaketak egon diren arren, ez dugu eboluzio zorrotzik izan.

**Bukatzeko, kontzerturik emango duzue?**

Momentuz ez dugu ezer, baina oso buru gogorrak gara, eta aurrera egingo dugu, seguru.



## Euskal Herriko Numenaren "mendekua"

Black musika gustuko dutenendako aukerako diskoa kaleratu berri du Numenek. Izen bereko diskoak sei kantu biltzen ditu, *Egunsentiaren heriotza*, *Gauaren irrifarre izkutua*, *Etsipenaren ispilu*, *Ahanzturaren hilobia*, *Belearen hegaldiak...iluntasuna dakar*, eta *Isiltasuna hots hutsa*. Sei kanta hauetan Euskal Herriko Numenak sinismenak galdu dituzten herritarrei mendekua hartzen dien istorioa kontatzen da.

Duda barik taldeak egindako diskorik landuena da, *Galdutako itxaropenaren eresia* eta *Basoaren semeak* lanen ondorioz.

Mireia Bikuña

# IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ).**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** Bi etxebizitza salgai erdialdean. Batak 115 metro koadro, lau logela, sukaldea, egongela, jangela eta bi komun. Besteak 75 metro koadro, bi logela, sukaldea, egongela, jangela eta bi komun. Biak igogailuarekin. 648 79 46 77.

**Aretxabaleta.** Erdigunean teilatupeko etxebizitza salgai. 72 m2. Jantzita. 16 metro koadroko garajea. 659 64 67 38.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai Durana kalean. 90 metro koadro, hiru logela, bi bainu, egongela, terraza eguzkitsua eta ganbara. 685 76 44 77.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Grupo San Juanen. 60 m2. Oso egoera onean. Altzariekin eta bizitzera sartzeko moduan. Ganbara eta sotoa dauzka. Igogailua eta berogailua, berriak. 600 90 76 73 edo 635 71 93 00.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai. Otalora 2. Azken solairua, ikuspegi zoragarria, 3 logela, 2 komun. Bizitzera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

**Arrasate.** San Andresen etxebizitza salgai. 57 m2. Guztiz berritua. Bi logela, egongela, bainugela, sukaldea. Kanpoaldera begira. Igogailua eta 37 m2-ko sotoa. 620 15 12 12.

**Arrasaten.** Doctor Bañez kalean etxebizitza salgai. 75 $m^2$. Gasarekin eta igogailuarekin. 192.324 euro. 629 10 41 31.

**Bergara.** 90 m2-ko duplexa salgai. Ibargarai 21. Jantzia. Estreinatzeko dago. Garajearekin. Deitu 619 71 70 53 edo 943 76 54 72 telefono zenbakietara.

**Bergara.** Alde zaharrean etxea salgai. Bi logela eta berogailua dauzka. Guztiz eraberritua. Deitu 649 56 34 92 telefonora.

**Bergara.** Basalgo auzoan baserria salgai lursailarekin. Deitu 610 73 65 40 edo 943 76 19 28 zenbakira.

**Bergara.** Etxebizitza nahiko berria da, erdialdean, eta egoera oso onean dago. 90 metro koadro ditu, ia erabat jantzita. 685 72 40 30.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zubiaurren. Guztiz berritua. Berogailua eta ganbara. Deitu 619 41 39 72 zenbakira.

**Bergara.** Etxebizitza salgai erdialdean. Berritua. Bi logela eta ganbara ditu. 605 73 37 39.

**Bergara.** Labegaraietan etxebizitza berritua salgai. 29.800.000 pezeta. 635 71 04 55.

**Bergara.** Zabalotegin etxea salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Deitu 653 70 84 04 zenbakira.

**Donostia.** 74 m2. Zurriolako hondartzatik bost minutura. 330.556 euro. Aukera aparta. Deitu 639 33 33 58 telefono zenbakira.

**Donostia.** Egia auzoan. 55 m2. Dekoradoreak egindako erreforma integrala. 312.526 euro. Aukera aparta. 639 33 33 58.

**Elgeta.** Etxea salgai Elgetan. Bi logela, ganbara, igogailua. Deitu 946 81 71 97 zenbakira.

**Eskoriatza.** 90 metro koadroko etxebizitza salgai. Sukaldea, egongela, lau logela, bi bainugela eta beste bi terraza ditu, baita gas bidezko berogailua ere. Erabat berritua. 636 57 76 13.

**Eskoriatza.** Baserri berria salgai. 220 m2. Lursaila dauka. 420.708 euro. 647 64 02 81.

**Eskoriatza.** Etxebizitza salgai Dorleta auzoan. 82 metro koadro. Lau logela, sukalde-jangela, bainugela eta lehortegia ditu. Berogailua du. Oso eguzkitsua da. 210.000 euro. Aukera paregabea. Deitu 645 97 45 64 telefonora.

**Getarian** itsasoari begira 58 metro koadroko etxebizitza salgai. Estreinatu gabea. Deitu 699 18 75 68 zenbakira.

**Guardamar del Segura (Alacant).** 63 m2-ko apartamentu berria salgai. Logela, bainugela, egongela, sukaldea, terraza, aire girotua, solariuma eta trastelekua ditu. Erabat jantzita. 117.800 euro. Deitu 657 79 88 01 telefono zenbakira.

**Luz Saint Sauveur.** Apartamentua salgai. 76.000 euro. Aukera ona. Deitu 685 78 37 82 telefono zenbakira.

**Nafarroa.** Urederra inguruan bi solairuko etxea salgai. 123 metro karratu. Berritua. 185.000 euro. 943 76 00 03.

**Oñati.** Duplexa salgai eraikitzen diharduten eraikinean. Lehen eta bigarren solairuak. Garajea eta trastelekua dauzka. Zubibarri kalean. Deitu 670 85 85 41 telefonora.

**Oñati.** Apartamentua salgai Kalegoieneko plaza berrian. Bi logela, bainugela, sukalde-egongela eta trastelekua. Egoera onean. 605 77 46 79.

**Oñati.** Duplexa salgai. 120 m2, erdialdean. Argitsua eta material ederrekin egina. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta estudioa. 420.000 euro. 676 39 36 93.

**Peñiscola.** Apartamentua salgai, lorategiarekin. Peñismar II. urbanizazioan. 170.000 euro. 948 41 00 79.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aramaio.** Etxebizitza alokagai herriko plazan. 4 logela, 2 komun, sukaldea, egongela eta berogailua dauzka. Lehenengo solairua. Deitu 945 44 53 60 telefonora.

**Arrasate.** 70 m2-ko etxea errentan unibertsitate aldean. Deitu 634 40 37 03 telefonora.

**Bergara.** Barrenkalean etxebizitza errentan. Erabat berritua. Bi logela ditu. Jantzia. Deitu 656 85 38 30 telefonora.

**Bergara.** Erdialdean dago. Sukaldea, egongela, bi logela eta bi komun. 900 euro hilean. 20:00etatik 22:00etara deitu. 679 86 64 38.

**Costa Sancti Petri-Chiclana** (Cadiz). Udarako guztiz hornituta dagoen apartamentua errentan ematen da. Leku zoragarrian kokatua, urbanizazio berria, igerilekua, mini-golfa, lorategiak... La Barrosa hondartzatik oso gertu. Deitu 616 14 65 54 edo 678 78 39 10 telefono zenbakietara.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta edo Arrasaten** etxea errentan hartuko luke bikote batek. 610 82 02 17.

**Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Igogailua duen etxe txiki bat alokatuko nuke. 696 74 92 43.

**Arrasate inguruan** langile gazte batek logela hartuko luke errentan. 630 43 72 96.

**Arrasate inguruan** logela bila dabilen langilea naiz. Galiziatik Ikerlanera lanera nator. Urtarriletik aurrera behar dut. Mila esker. Daniel. 616 90 58 38.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aramaio.** Etxebizitza osatzeko pertsona baten bila gabiltza. 699 28 99 06.

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko bi lagun etxe eta jende bila dabiltza. Haritz eta Manex. 605 75 69 84 edo 675 70 46 88.

**Arrasate.** Musakolako etxebizitza batean logela emango nuke errentan. Berogailua du. Oso eguzkitsua. Egoera onean. 943 79 02 37 edo 699 47 76 24.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Otsailetik aurrera. 653 71 44 57.

**Arrasaten.** Jendea behar da etxebizitza osatzeko. Deitu 630 43 72 96 zenbakira.

**Bergara** Logela alokatzen dut, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 15 edo 17 euro eguneko. 627 75 81 94.

**Gasteiz.** Neska behar dugu etxea osatzeko Gorbeia kalean. Berokuntza zentrala dauka. 350 euro hilero, gastu guztiak barne. 652 72 18 87.

**Aretxabaleta.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. 652 72 00 06.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** Garajea salgai Masterreka kalean. 651 70 90 12.

**Eskoriatza.** Garaje itxia salgai Aingeru ibiltokian, gasolindegitik gertu. 607 43 84 55.

ARRASATE

**Ostalaritzarako lokala errentan ematen da. 629 77 10 72**

**Oñati.** Garaje itxia Olapoto auzoan. 17 m2. 943 08 18 13 edo 677 42 57 94.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Antzuola.** Garaje plaza emango nuke errentan Sagastin. 650 55 44 98.

**Aramaio.** Iturrizuri kalean garaje bat errentan ematen da. Gauez deitu. 945 44 51 97.

**Arrasate.** Garajea errentan Kontzezino kalean. 943 79 54 06 edo 655 71 81 84.

**Arrasate.** Garajea errentan Uarkapen. 675 71 59 92.

**Arrasate.** Garaje irekia errentan Uribarri kalean. Trastelekuarekin. Deitu 635 72 27 81 edo 686 62 25 75 telefonoetara.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Pertsona bat behar da lanaldi erdiz umeak zaintzeko. 943 79 52 78.

**Bergara.** Egunean bi orduz umeak zaintzeko emakumea behar da. 686 24 68 92.

**Bergara.** Emakumea behar da etxean lan egin eta umeak zaintzeko. 943 76 50 63 edo 690 77 66 03.

**Bergarako** etxe batean andre euskalduna behar da 07:00etatik 09:30era. 656 41 00 03.

ARRASATE

**Zerbitzaria behar da asteburuetan gauez lan egiteko. 943 79 11 25**

### 402. ESKAERAK

**Antzuola.** Emakumea gertu atariak, lokalak eta abar garbitzeko. 667 80 63 97.

**Debagoienean** edozein motatako lanak egingo nituzke. Deoti 659 58 67 69 zenbakira.

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu adinekoak edo umeak zaintzeko, eta etxeko garbitasun lanak egiteko. 943 53 33 92.

**Arrasate.** Emakume euskalduna etxeko lanak egiteko gertu. 680 49 11 45.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu umeak zaintzeko. Esperientziaduna. 943 79 78 43 edo 665 74 51 22.

**Arrasate.** Emakumea gertu garbiketa lanak egin edota nagusi zein umeak zaintzeko. Maria Teresa Oliva. 943 79 13 10.

**Arrasate.** Neska euskalduna prest eguerditik aurrera umeak zaintzeko, goizez Haur Hezkuntzako ikasketak egiten dihardueIako. 620 42 38 48 edo 690 19 82 79.

**Arrasate.** Neska gertu etxeko lanak egin, bulegoak garbitu eta umeak zaintzeko. Esperientziaduna. 696 11 01 94.

**Bergara.** Egunean bi orduz umeak zaintzeko emakume bat behar da. 686 24 68 92.

**Bergara.** Emakume bat etxeko lanak eta adineko pertsonak zaintzeko gertu. 618 93 59 29.

**Bergara.** Esperientzia handia duen emakumea haurrak zaintzeko prest. 675 70 10 63.

**Bergara.** Etxeko lanetan edo adinekoak zaintzen lan egiteko gertu. Esperientziaduna. 650 17 74 87.

**Bergara.** Neska gaztea etxeak garbitzeko gertu. 10:00etatik 12:00etara eta 15:00etatik 18:00etara. 696 84 19 51.

**Debagoiena.** Edozein lan egingo nuke, batez ere ostalaritzan. 638 44 02 84.

**Debagoiena.** Emakumea gertu arratsaldeko 3ak arte etxeko lanak egin, lantegi edo bulegoak garbitu edota pertsonak zaintzeko. Maura. 637 06 16 31.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko. Deitu 610 84 94 85 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea prest nagusiak edo umeak zaintzeko. 663 65 78 43.

**Debagoiena.** Era guztietako ordenagailuak konpondu, instalatu eta gertatzen ditut. Aaron. 659 58 67 69.

**Debagoiena.** Gizonezko gaztea eraikuntza alorrean lan egiteko gertu. Bigarren mailako ofiziala. 696 48 42 50.

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu edozein lan egiteko. Arkaitz. 608 14 68 03.

**Debagoiena.** Mutil gaztea lan egiteko gertu. 645 72 92 87.

**Debagoiena.** Mutila gertu eraikuntza arloan edo aroztegian lan egiteko. Gainera, pertsonak zaintzen ere egingo nuke lan. 685 42 72 80.

**Debagoiena.** Neska gaztea edozein lanetarako prest goizean edo arratsaldean. Lau orduz. Erdi mailako zikloa. Administraritza kudeaketa. 690 70 91 46.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Goi zikloetarako sarrera-proba egin ahal izateko, matematika eskolak hartuko nituzke, aste bukaeretan. Deitu 629 42 25 84 edo 669 23 61 85 telefono zenbakira.

**Eskoriatza.** Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako ikasleari eskola partikularrak emateko irakaslea behar da. Deitu 943 71 46 87 edo 646 87 29 32 telefonora.

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingeles eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

**Arrasate.** Neska euskalduna prest Lehen Hezkuntzako umeei eskola partikularrak emateko. Deitu 620 42 38 48 edo 690 19 82 79 telefonora.

**Bergara.** Zientzietako klaseak ematen ditut (Matematika, Fisika, Kimika, Biologia eta Geologia), Lehen hezkuntzako, DBH-ko eta Batxilergo kurtsoetan dauden ikasleentzat. Arreta pertsonalizatua eta ikaslearen etxean. 627 85 20 80.

**Bergara.** Ikasketadun gazte bat Lehen Hezkuntzatik batxilergorainoko haurrei eskola partikularrak emateko prest dago. 645 71 81 84.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Autokarabana** salgai. 1990ekoa, egoera onean. 7.500 euro. 686 86 01 62.

**BMW 320**. 1996koa. 635 71 04 55.

**BMW F 650 GS** motorra salgai. Egoera oso onean: 2.543 kilometro. Bi urte. Hainbat osagai. 6.100 euro. 636 85 74 43.

**C-Max** autoa salgai. Hagunak (llantak) eta aire-girogailua ditu. 50.000 Km. Diesela. 14.000 euro. 639 90 36 18.

**Derby Senda-R** motorra salgai. 4.000 kilometro. 49 cc. 950 euro, eta egoera oso onean. 670 60 02 65.

**Ford Fiesta 1.1** autoa salgai. 1994an matrikulatua. Egoera onean, IAT (ITV) pasa berri. 95.000 km. 669 73 76 04.

**Ford Mondeo 2.500** V6 familiarra. 1998koa. 635 71 04 55.

**Harley Davidson** motorra salgai. 883 cc. Transformatua. Egoera onean. 6.000 euro. Deitu 686 86 01 62 zenbakira.

**KTM 250** EXC 2T salgai. 2000koa. Matrikulatua eta paper guztiak egunean. IAT (ITV) 2009ko martxora arte. Diskoak eta transmisioa jarri berriak. Oso egoera onean. 2.300 euro, transferentzia barne. 699 98 36 71.

**Nissan Almera** salgai. 2,2 di. 16 v. Sport. 646 03 39 45.

**Peugeot 205** salgai. SS-X matrikula. 480 euro. 606 21 72 56.

**Volkswagen Transporter TDI** salgai. 2000koa, 210.000 km. 90 zaldi, aire egokitua, lo egiteko prestatuta. 8.000 euro. 685 78 62 64.

**Honda CR** litro eta erdiko motorra salgai. 1999koa. 1.200 euro, negoziagarriak. Deitu 686 37 71 39 zenbakira.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Cocker ingelesa** salgai, emea. Txertoa jarrita, parasitoak kenduta eta mikrotxiparekin. Beltza. 250 euro. Deitu 696 11 01 94 telefonora.

### 703. EMAN

**Txakur** txiki bat opari egiten da. Emea eta kanela kolorekoa. Txertoa jarrita eta parasitoak kenduta dauzka. Deitu 696 11 01 94 zenbakira.

**Etxeko** lau katakume oparitzen dira. Oso politak. Deitu 635 74 34 55 telefonora.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Astrolon teleskopioa** salgai. 943 79 41 31.

**Autorako** umeen aulkia salgai. 943 79 41 31.

**Jostun manikia** salgai. Prezio onean. Arrasate. 635 75 09 47.

**Karabina.** Karabina erdiautomatikoa saltzen dut, 22koa. Berriberri dago. 943 76 56 94.

**Mahai obalatua** salgai. 136x92 cm, luzagarriarekin. Asier. 617 17 15 88.

**Eskiatzeko** botak salgai. 40-41 neurriko Lange 130 World Cup MF modeloa. Lehiaketetarako, eta umeentzako. Oso egoera onean. 120 euro. 676 97 54 44

**Olympus E-410** argazki kamera digitala saltzen dut. ED 14-42 mm eta 40-150 mm-ko objektiboekin. Erabili gabe dago. 700 euro. 660 80 09 71.

**Ostalaritzako materiala** salgai. Aulkiak, mahaiak, gasako labea, ebakitzeko makina, etab. 649 84 67 09.

**Somierra** salgai. 1,35. 60 eurotan. 617 17 15 88.

**Ume-kotxea** salgai, bikiendako. Jane Twin Two markakoa. Matrix Pro bi opari. Sei hilabete erabilita eta egoera oso onean. 645 00 99 35 edo 636 51 54 79.

### 803. EMAN

**'Desnivel' eta 'Pyrenaica'** aldizkari zahar mordoa daukat kentzeko (botatzeko). Inork gura baditu, deitu arratsaldeko 6etatik aurrera 646 37 76 57.

**Gurpil-aulkia** eta nagusien takataka debalde ematen dira. Deitu 636 34 18 47 telefonora.

### 806. GALDU

**Argazki kamera digitala** galdu dut Bergarako taxi geltokian. Sarituko da. 605 71 77 11.

**Txaketa beltza**. Urtarrilaren 5eko gauean, Bergarako Ariznoa tabernan txapeladun bi txaketa beltz berdin nahastu ziren nahi gabe, bat S neurrikoa eta nirea XL. Gustura trukatuko nituzke berriz. Deitu 645 00 53 91 zenbakira.

### 807. AURKITU

**Argazki kamera** digitala aurkitu dut mendian. 607 97 61 85 .

**Txaketa** beltza aurkitu nuen Gabon Zahar gauean, Bergarako Ariznoa taberna parean. Deitu 943 76 29 79 zenbakira.

## 9/ HARREMANAK

### 902. HARREMANAK

**Emakumezkoa ezagutuko nuke.** 39 urteko gizonezko arrasatearra naiz, eta emakumezkoa ezagutuko nuke edozein harremanetarako. Ezkongabea naiz, eta ez dut seme-alabarik. 943 79 02 37.

Urtarrilak 14a:
157. zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

**Zorionak irabazleoi!**

Gaur, urtarrilak 14, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

**Saridunak**

**Realeko txaleko bat.**
- Angelita Egido (Arrasate)

**XABIER ARREGIren "HERRIA, HIRIA ,NAZIOA" (Pamiela argitaletxea) liburu bat.**
- Asensio Ramirez Davilla (Arrasate)

Sariak jasotzeko epea: 15 egun

**158. zozketako sariak**

**REALEKO TXALEKO BAT ETA KAMISETA BAT**

**Harpidedun ez bazara...**

Harpidedun egiteko:
943 08 10 50
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:
38 euro
2008ko urteko kuota

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

## astea GOITBn

### Astelehena, 14



**> Vasco-Navarro trenaren gaineko erreportajea**
**21:47**

Vasco-Navarro trenak ibiltzeari utzi ziola 40 urte pasatu berri direnean, Julen Iriondok trenaren gaineko erreportajea prestatu du.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Erreportajea: Ttipi TTapa.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ilunpean
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Berbaire.
**16:15** Berbaire.
**16:45** Berriak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Hitz bitan.
**18:15** Ikusten.
**18:45** Berriak.
**19:15** Gertutik.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Calimero.
**20:45** Berriak.
**21:15** Harmaillatik.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Erreportajea.
**22:15** Kirolari.
**22:45** Berriak.
**23:15** Harmaillatik.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** 28 Klipa.
**00:15** Emisio amaiera.

### Martitzena, 15



**> Gaurkotasuneko gaiak mintzagai, 'Berbairen'**
**21:47**

Arrate Landa, Larraitz Ugarte, Elena Laka, Egoitz Iturbe eta Ainhoa Larrañagak, aktualitateko gaiak aztertuko dituzte 'Berbaire' saioan.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Horry.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Erreportajea.
**14:15** Harmaillatik.
**14:45** Berriak.
**15:15** Gertutik.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Kirolari.
**16:15** Eltze beroa
**16:45** Berriak.
**17:15** Horry.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** 28 Klipa .
**18:15** Musikantoi.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak: Horry.
**19:45** Berriak.
**20:15** Kantari
**20:45** Berriak.
**21:15** Teknopolis.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Berbaire
**22:15** Animaliak.
**22:45** Berriak.
**23:15** Ikusmira.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** Erreportajea.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 16



**> Idiazabalgo Gazta museoa, 'Zaharrak berri'-n**
**21:47**

Aitziber Aranburuzabalaren eskutik, Idiazabalgo gazta museoa ezagutzeko aukera izango duzue datorren astean, 'Zaharrak berri' saioan.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Kantari.
**14:15** Eltze berioa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Animaliak.
**16:15** Teknopolis.
**16:45** Berriak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Gertutik.
**18:15** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Berriak.
**20:15** Zaharrak berri.
**20:45** Berriak.
**21:15** Ikusten.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Zu kazetari.
**22:15** Ur eta lur.
**22:45** Berriak.
**23:15** Teknopolis.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** Jazmina.
**00:15** Emisio amaiera

### Eguena, 17




**> 'Musikantoi' Maider Arregiren eskutik**
**21:47**

Eguenero bezala, askotariko musikaz betetako saioa prestatu du aste honetarako ere Maider Arregik, 'Musikantoi' saioko aurkezleak.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Zaharrak berri.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Marazki bizidunak.
**14:15** Zu kazetari.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Animalia.
**16:17** Teknopolis.
**16:45** Berriak.
**17:15** Horry.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Gertutik.
**18:15** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazkiak.
**19:45** Berriak.
**20:1**5 Kantari.
**20:45** Berriak.
**21:15** Erreportajea.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Berbaire.
**22:15** Musikantoi.
**22:45** Berriak.
**23:15** Ikusten.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** Ilunpean.
**00:15** Emisio amaiera

### Egubakoitza, 18



**> Inazio Arregi Jesuita, 'Ilunpean' saioan**
**21:47**

Inazio Arregi Jesuita izango da egubakoitzean 'Ilunpean' saioan. Radio Vatikanoko informatiboetako zuzendari izan da 20 urtean zehar.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Kantari.
**14:15** Animaliak.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Berbaire.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Eltze beroa.
**16:15** Musikantoi.
**16:45** Albisteak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ilunpean.
**18:15** Eerreportajea.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Ikusmira .
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak:
**20:45** Berriak.
**21:15** Erreportajea.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** 2x2.
**22:15** Ilunpean.
**22:45** Berriak.
**23:15** Berbaire.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** Musikantoi.
**00:15** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

FM 107.7

**> Kontzertutarako sarrerak zozketatuko dituzte**
**10:30**

Arrasate irratia berrikuntzekin datorkigu aste honetan, 3.60 aretoak eskaintzen dituen kontzertuetarako sarrerak zozketatuko ditu eta hemendik aurrera. Horretarako, 943 25 05 05 telefonora hots egin behar duzue.

**Astelehenetik egubakoitzera**

**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibili Munduan geltokia
Elkarrizketak
Lorategiaren gelltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

**Zapatua**

**10:00** Asteko gainbegiratua. *Ilunpean* saioan, Exkixu taldeko Alex Sardui; musika kontuak, *Kantaka* saioan; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta kontuak, besteak beste) *Zaharrak berri* saioan, eta beste.

**Domeka**

**10:00** Asteko gainbegiratua.
**16:00** Danbaka: Scam.
**23:00** Danbaka: Scam.

## asteko hitzorduak

### Hitzaldia



ARRASATE

**> 'Globalizazioaren ondorioak Indian', Primi Vela Goikotxearekin**

Harremanek antolatuta, Primi Vela Goikoetxea mojak *Globalizazioaren ondorioak Indian* izango ditu aztergai gaur, astelehena, Kulturaten, 19:00etan. 35 urte inguru darama Indian Primi Velak, umezurtzekin lanean.

### Hitzaldia



OÑATI

**> Klubetik enpresara arteko jauzia aztergai, Mutiloa eta Muruarekin**

*Klubetik enpresara: gestioa profesional bihurtzetik profesionala dena gestionatzera* hitzaldia, Patxi Mutiloa Aspeko gerentea (irudian) eta Juan Mari Murua Aventoko zuzendariaren eskutik. Eguenean, Eteon, 18:00etan.

### Zinema



BERGARA

**> Zinema emanaldiak gaztetxean igande arratsaldetan**

Gaztetxeak honako zinema emanaldiak iragarri ditu: *Kids* (urtarrilaren 20an); *El verano de Kikujiro* (27an); *El graduado* (otsailaren 10ean), *Solas* (17an) eta *Una historia verdadera* (24an). Emanaldi guztiak, 18:00etan.

## gertutik



Iñaki Elortza
Euskadi Irratiko kirol zuzendaria

# "Lan handia egin genuen euskarazko terminologia sortzen"

**MIREN ARREGI** > BERGARA

**Iñaki Elortza Azpeitian jaio zen duela 55 urte. Aparejadorea bada ere, kazetaritzan aurkitu du Elortzak ogibidea. Futbol partiduak bere kabuz eta euskaraz grabatzeari ekin zion oraindik euskarazko komunikabiderik ez zegoen garaian, eta 25 urte darama Euskadi Irratian, kirol esatari lanetan. Egun, kiroletako burua da Euskadi Irratian.**

**Euskadi Irratiaren hasierako urtetan lan handia egin zenuten. Asko aldatu dira gauzak?**

Bai, batez ere kazetaritza aldatu da. Garbi daukat komunikabideetan, eta batez ere irratian, gu komunikatzaileak garela eta jendeak ulertzeko moduko terminologia erabiltzea ezinbestekoa dela. Garai haietan ere garbi geneukan euskarazko hitzak behar genituela eta lan handia egin genuen zentzu horretan.

**Futboleko eta pilotako esatari izan zara. Zer nahiago?**

Hasierako urtetan futboleko esatari lanetan aritu nintzen. Orain pilotarekin oso gustura nago. Gizartea berez egin da gatazkatsua eta futbolean ere pazientziarik gabeko gizarte bat egin gara. Emaitzak berehala eskatzen ditugu eta ez dago margenik. Pilotan ez da horrelakorik gertatzen eta oihartzun gutxiago badu ere, gusturago nago pilotarekin.

**Kirolik egiten duzu?**

Ez, ez. Urte askotan egin dut. Euskal Herrian kalera korrika egitera irteten zen lehenengotarikoa naizela esango nuke. Orain 40 urte ez zen inor kalera korrika irteten. Pentsa, etxetik irteten ginenean korrika egitera etxearen atzeko aldetik irteten ginen, inork ikusi ez gintzan. 1978an egin nuen Donostiako lehen maratoia. Baina, egun ez dut kirolik egiten, bizitza lasaiagoa daramat.

**Telebista zaborraz hitz egiten da; ba al dago irrati zaborrik?**

Ziur badagoela, baina nik oso irrati osasuntsua entzuten dut. Badakit mota bateko irratsaiotan Euskal Herriari egunero egurra ematen zaiola, eta horiek entzunez gero haserretuko naizenez, nahiago dut horiek ez entzun.

## kuxkuxeroa



Mireia Bikuña

# Urtarrileko aldapa edo beherapenak?

Urtarrila hilabete gogorra izaten ei da, ia gauza guztietarako, baita ASTELEHENEKO GOIENKARIAn idazten dugun tarte honetarako ere. Badakizue, Gabonak pasa ondoren, poltsikoetan disgustu galantak egoten direla, eta zer esanik ez, pisu gainean jarriz gero.

Bada, oraindik badaude dirua geratzen zaien lagun batzuk. Zapatua, beherapenetako lehen zapatua izan zen; eta, lagun batek emandako txostenaren arabera, Oñatiko eta bailarako lagun asko zegoen **Boulevard** eta **Gorbeian** erosketan egiten. Beherapenetako *txolloak* aprobetxatu egin behar direla, aizue! Zuek egon zarete beherapenetan, edo zuen aldapa ere gogorra izaten da?

**"Oñatiko eta bailarako lagun asko zeuden Boulevard eta Gorbeiako beherapenetan"**

Beste lagun asko aste bukaeran nahiago izan dute etxeko epeltasunean egon, poltsikoetako zuloa handiagoa ez egiteko. Eta beste asko eta asko, **Mikel Urdangarinek** Amaia antzokian eskaini zuen kontzertuan egon ziren. Han ere giro epela egiten zuen, epelegia agian. *Anek idatzi dit zutaz* izeneko diskoaren aurkezpena egin zuen.

Urtarrileko aldaparen ondoren **txotx denboraldia** hasten da. Aramaioko **Iturrieta** sagardotegian zapatuan egingo dute. Beste aukera batzuk daude: Hernanin, Astigarragan... Txotx!

## asteburuko albuma

**Inoiz baino jende gehiago Urtezahar egunean Udalatxen.** Arrasateko mendizale talde bat hamar bat urte daroa urtero, Urtezahar egunean, Udalatxera igotzen, han arratsalde pasa egin eta modu horretan urtea bukatzeko. Bada, oraingoan, marka hautsi dute, izan ere, eguraldi ederra egin zuenez, 60 bat lagun batu ziren goian; eguraldi txarra egin izan duenean, 20 edo 30 bat mendizale batu izan dira. Halako talde handiarekin, giro bikaina izan zuten Udalatxen. Sagardoarekin eta xanpainarekin topa egin, turroia jan, Gabon kantuak abestu eta etxafuegoak bota ondoren, poliki-poliki jaitsi ziren berriz herrira. Datorren urtean berriz joango direla esan digute.





**Mikel Urdangarinek 'Ane' ekarri zuen Arrasatera.** Mikel Urdangarin zornotzarrak kaleratu berri du *Anek idatzi dit zutaz* diskoa, berak ekoiztutakoa, eta hango doinuak ekarri zituen zapatu ilunkaran Arrasateko Amaia antzokira. Jendeak bazeukan ikusmina, izan ere, Amaia antzokian 300 bat lagun batu ziren, Urdangarinek Arrasaten egin zuen aurreko kontzertuan baino gehiago. Giro intimista baten, bere musikariek ondo lagunduta –Rafa Rueda, gitarra elektrikoarekin; Bingen Mendizabal eta Nika Bitxiasvili, biolinarekin; Saihela, baterian, eta Koldo Uriarte, teklatuan–, Zornotzakoak disko berriko abestiak eta zaharragoak eskaini zituen.

**Poxpolo, Mokolo eta Konpainia, konpainia onean.** Pailazoek gustuko dute Debagoiena eta hemengo umeak; ez da gutxiagorako, izan ere, beti sekulako harrera egiten diete. Atzo, domeka, Poxpolo, Mokolo eta Konpainia etorri ziren Bergarako Udal Pilotalekura, helburu polit batekin: umeei irribarrea eta algara sorraraztea. Euren ikuskizun guztietan, dibertitzeaz gain, balioak transmititu nahi izaten dituzte, eta halaxe egin zuten atzokoan ere. Besteak beste, era askotako animaliak, kultura eta jatorria desberdinak, hizkuntzak, irudi geometrikoak, zenbakiak, hitzak, magia eta koloreak erabiltzen dituzte pailazo ezagunek.



ESKELA

## Paula Mendizabal Beitia

Arrasaten hil zen 2008ko urtarrilaren 11n, 90 urte zituela.

GOIENAk bat egiten du senideen saminarekin.



Arrasaten, 2008ko urtarrilaren 14an.

## hildakoak

- **Pablo Uribesalgo Makazaga.** Bergara, urtarrilaren 10ean. 80 urte.
- **Paula Mendizabal Beitia.** Arrasate, urtarrilaren 11n. 90 urte.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 01**

**Eskelaren prezioa: 87 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

**Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.**

## zorion agurrak


ARRASATE
**Iñaki Gorosabel Arce**
Urtarrilaren 2an. Zorionak Iñakitxo zure lehengusu eta izeba-osaben partetik.


ARRASATE
**Peio Sanchez**
Urtarrilaren 4an. Zorionak eta patxo bat etxekoak eta lehengusuen partetik!


ELGETA
**Amets Olasolo Mendizabal**
Urtarrilaren 4an, urtebete! Zorionak familia guztiaren partetik!


ARRASATE
**Lia Garai Bengoa**
Urtarrilaren 9an. Zorionak Lilitxo! Patxo haundi bat etxekuen partetik.


ARRASATE
**Oier Ibarzabal**
Urtarrilaren 9an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.


ARETXABALETA
**Amaia Altube eta Ainere Caballero**
Amaiak, urtarrilaren 10ean eta Ainerek, 27an bi urte. Zorionak eta muxu haundi bana aitatxoren partetik. Ondo pasa!


ESKORIATZA
**Karmele Varo**
Urtarrilaren 10ean. Zorionak aita eta aman partetik.


ARRASATE
**Lander Lopez Kortabarria**
Urtarrilaren 10ean. Ondo pasau zure eguna eta zapatuko bazkaixa zure kontu, bai? Etxeko danon partetik muxu haundi bat.


ARETXABALETA
**Jon Ander Larrinaga**
Urtarrilaren 10ean. Zorionak artista! Zu ardaua mouen lehen kriantza eta orain erreserba. Toni.


ARETXABALETA
**Araitz Lizarriturri Etxenausia**
Urtarrilaren 11n. Zorionak eta urte askotarako, sorgintxo! Ondo pasau zure 2. urtebetetze eguna. Patxo haundi bat familixaren partetik. Paaaaaaa!


ARETXABALETA
**Urko Altuna**
Urtarrilaren 11n, 3 urte. Zorionak. Bihotz bihotzez familia guztiaren partetik.


ARRASATE
**Julen Ugalde Gorosabel**
Urtarrilaren 11n. Zorionak Julentxo! Asubetar eta familiaren partetik.


ARRASATE
**Amaia Letona Eriz**
Urtarrilaren 12an, 12 urte. Zorionak eta muxu asko etxeko danon partetik!


OÑATI
**Unai Bikuña Uribeetxeberria**
Urtarrilaren 12an zure 14 urtebetetzean zorionak etxeko guztien partetik.


OÑATI
**Olatz Altuna Galdos**
Urtarrilaren 12an, urte 2. Zorionak eta muxu handi bat familiakoen partetik.


ARRASATE
**Iraia Lopez**
Urtarrilaren 13an, 4 urte. Zorionak Arizmendi Sanvi Txikiko lagunen partetik.


OÑATI
**Uxue Igartua Kortabarria**
Urtarrilaren 14an, urtebete. Zorionak eta patxo haundi bat etxekoen partetik.


BERGARA
**Aiora Etxezarreta eta Maialen Ibarra**
Urtarrila 13an, 8 urte beteko dituzte. Zorionak etxeko guztien partetik.


OÑATI
**Elisabeth Agirre**
Urtarrilaren 14an. Zorionak eta urte askotarako! Ondo pasau zure egunian eta laztan haundi bat kuadrillakuan partetik.


ARETXABALETA
**Juan Carlos Vazquez**
Urtarrilaren 14an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi bat seme-alaben partetik.


ARRASATE
**Saioa Baena Gorosabel**
Urtarrilaren 14an. Zorionak *Saio*! Muxu asko familiaren partetik.


ARETXABALETA
**Amona Corona**
Urtarrilaren 15ean, 86 urte. Zorionak eta muxu handi bat iloben eta biloben partetik.


BERGARA
**June Arando**
Urtarrilaren 16an lau urte. Zorionak txori txiki! Muxu handi-handi bat etxeko guztien partetik.


BERGARA
**Olatz Azkarate**
Urtarrilaren 17an. Zorionak zure 9. urtebetetzean zure lagunaren partetik, bereziki Maialenen partetik.


ARETXABALETA
**Kaiet Gonzalez Altuna**
Urtarrilaren 17an. Kaiet, zorionak mutil handi! Muxu bat etxekoen partetik.


ARETXABALETA
**Jon Vazquez**
Urtarrilaren 18an, urtebete. Zorionak eta muxu handi-handi bat arrebaren eta gurasoen partetik.


ARETXABALETA
**Eñaut Beltran de Heredia**
Urtarrilaren 17an, 7 urte. Ea ba igartzen den! Zorionak futbolari, eta ondo-ondo pasatu. Alaitz, Manex eta Monika.


ARRASATE
**Manex Okina**
Urtarrilaren 18an, 6 urte. Zorionak amama, aitita eta Itziarren partetik.


ARRASATE
**Beatriz Uribarren Lagunilla**
Urtarrilaren 19an, 35 urte. Zorionak, Bizkaia etorbideko familiaren partetik. Muxu handi bat Errioxara!


ARETXABALETA
**Malena Gonzalez Altuna**
Urtarrilaren 19 Malena, egun ona pasa eta muxu pila. Etxekoen partetik.


BERGARA
**Martin Verguizas Arroitajauregi**
Urtarrilaren 19an, 4 urte. Maialen eta gurasoen partetik zorionak!

## jaiotakoak


**Yagoba Gil Kortabarria**
Aramaio > 3.200 kilo. Urtarrilaren 9an. Gurasoak: Arantzazu (Aramaio) eta Ritxard (Arrasate). Argazkian lehengusina Naiararekin.


**Peru Alza Arkauz**
Aretxabaleta > 3.620 kilo. Urtarrilaren 9an. Gurasoak: Eneritz (Aretxabaleta) eta Josu (Hondarribia). Argazkian Peru jaioberria.


**Alaitz Azula Urrutia**
Arrasate > 3.750 kilo. Urtarrilaren 8an. Gurasoak: Arantxa (Arrasate) eta Xabier (Arrasate). Argazkian Alaitz gurasoekin.


**Elene Cid Arevalo**
Bergara > 3.750 kilo. Urtarrilaren 12an. Gurasoak: Eva (Eibar) eta Imanol (Bergara). Argazkian Elene aitaren besoetan.

BABESLEA


Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Inazio Arregi** > Jesuita

# "Herritar askok babestu zuten Loiola Irratia"

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

**Inazio Arregi Oñatiko jesuita Radio Vaticanoko arduradunetako bat izan da 20 urtetan. Horren aurretik, baina, Loiola Irratia FM bidez emititzearen lan-taldeko arduraduna eta Eusko Irratiko zuzendaria ere izan zen.**

**1931n Errepublikaren urtean jaio zinen. Inoiz esan duzu urte horretan jaio izanak markatu zintuela...**

Bai, gogoan daukat umetan zenbat urte nituen galdetzen zidatenean, zera esaten zidatela: "A, Errepublika garaikoa zara". Hala, jakin-min ikaragarria neukan Errepublika zer zen jakiteko...

**Zuen familiakoa zen Oñatiko txokolate *onena*?**

Onena ez dakit, baina *Onena* izena zeukan gure familiaren txokolate markak. Orduan Oñatiko hainbat familiatan egiten zuten txokolatea, eta gurea horietako bat zen. Gogoan daukat ez zegoela lehiakortasun handirik, eta familia horien artean harreman handia genuela. Horrez gain, gogoratzen dut lagunak-edo gure etxera etortzen zirenean txokolate usaina hartzen zutela (guk igarri ere egiten ez genuena) eta inbidiaz esaten ziguten zorte handia genuela.

**Noiz erabaki zenuen elizagizon bihurtzea?**

Nik 10 bat urte nituenean herrira bi jesuita etorri ziren eta liluratuta utzi ninduten berba egiteko zuten gaitasunarekin. Orduan erabaki nuen nik ere hala berba egin eta halako gaitasuna izan gura nuela. Gurasoak pixka bat harrituta gelditu ziren, eta azkenean aitak esan zidan jesuitekin ikasketak egiteko eta gerora zer egin behar nuen nik neuk erabakitzeko. Ikasketak egitearena oso ideia ona iruditu zitzaien, jakina.

**Bergamon (Italia) Gizarte komunikazioa ikasi ostean, Loiola Irratiari bultzada ikaragarria eman zenion...**

Lortu genuen Loiola Irratia FM bidez helaraztea eta ikaragarrizko erantzuna izan genuen herritarren aldetik. Hainbatek dendan Loiola Irratia entzuteko aparatua eskatzen zuten.

**Gerora, Eusko Irratiko arduradun izan ondoren, Radio Vatikanora jo zenuen...**

Bai. 20 urte egin nituen han, eta gogoan daukadan une hunkigarriena Joan Paulo II. aita santuaren hileta izan zen. Mundu guztirako eman genuen hori.

**Arruperen omenaldia ere aurkeztu zenuen...**

Euskaldunan izan zen 2.500 lagunen aurrean. Bezperan larri egon nintzen, baina gero, ondo.

TEST-A

**Herria:** Oñati. **Adina:** 76 urte. **Ikasketak:** Filosofia, Teologia eta Gizarte Komunikazioa. **Zaletasunak:** Batez ere bidaiak egitea eta munduа ezagutzea. Baita ere musika entzutea. **Zein da ahaztu ez duzun bidaia?** Nik atzerrian ikusi ditudan gauza zoragarrienak izan dira Iguazuko ur-jauziak, Machu-Pichu eta Taj Mahal. **Zer amets bete duzu?** Zorte handia izan dut. Konturatu barik irratiaren proiektua bizi ahal izan dut.



**BIDAIAK** Joan Paulo II.arekin eta bere kasa asko bidaiatu du Arregik. I.BARANDIARAN

## ai, ene!



### Eztei-tarta apaintzeko modu berriak

Betiko apaingarrietaz asperturta dauden bikoteek eztei-tarta apaintzeko eskuragarri dauden irudi bitxi hauek lor ditzakete.

http://celebrations-galore.com

## biharamuna

Oier Bolibar

### Caucauasu

Ez dakit zenbat aldiz entzun dudan azken asteotan Caucus hitza. Antza denez, Caucauasu jatorrizko hitzetik eratorria da. Horrela esaten omen zioten bere garaian Algonquin hizkuntzan Ipar Amerikako tribu indiar batzuek tribuko buruzagien biltzar nagusiari. Estatu batuetako demokratek hartu zuten izen hori mailegutzat nonbait, beraien presidentegaia hautatzeko barne prozesua izendatzeko. Orain, guztion ahotan daukagu.



Demokraten aldetik, **Clinton**, **Obama**, **Edwards**, eta abar. Errepublikarren aldetik berriz **Huckabee**, **Giuliani**, **McCain**, e.a. batzuk ezagunak zirenak, eta besteak ezagunak egin dituztenak. Ixturaz behintzat, AEBtako demokraziaren osasun ona egiaztatzen omen du prozesu honek.

Makillajez atondutako marketing politikoa, berriz ere inork ezin baitu bermatu **George W.Bush** lehen aldiz hautatua izan zeneko Floridakoa bezalako iruzurrik gertatuko ez denik. Eta AEBtan horrelako amarrurik badugu, zeresanik ez Espainako estatuan.

Caucauasu-a dugu agian Euskal Herrian soluzio.

## eguraldia



| MINIMOA | MAXIMOA |
|---|---|
| +05 | +13 |

Hodeiak eta ostarteak egongo dira, eta, tarteka, euri tanta batzuk, batez ere arratsaldean. Hegoaldeko haizea ibiliko da.

www.euskalment.net





Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, GIPE hutsunea KODEA
ABESTIAK: Bidali, GIPP hutsunea KODEA
LOGOAK: Bidali, GIPL hutsunea KODEA
JOKOAK: Bidali, GIPJ hutsunea KODEA

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (2 sms)
Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | AITORMENA
Aizkolari (Kortatu) | AIZKO
Amore amore (Karidadeko benta) | AMORE
Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) | ASKATA
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) | BEGIAK
Bi Minutuero (Hertzainak) | BIMINU
Dub manifest (Fermin Muguruza) | DUB
Egunero (Hertzainak) | EGUNERO
EH Sukarra (EH Sukarra) | SUKAR
Ellos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) | ELLOS
Enamorado de la muerte (RIP) | ENAMO
Entzuidazu (Aterking's) | ENTZU
Etorkizuna (Etsaiak) | ETORKI
Ezer ez da betiko (Ken7) | EZER
Gora Herria (Negu Gorriak) | GORA
Hator Bel-Air (Bide Ertzean) | BELAIR
Haizea (Ken7) | HAIZEA
Hegal egiten (Itoiz) | HEGAL
Ikusi (Delirium Tremens) | IKUSI
Ilargia (Ken 7) | KEN
Inpernuen ate joka (Gatibu) | INPER
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) | JOKIN
Kaixo (Urtz) | KAIXO
Lau Teilatu (Itoiz) | ITOIZLAU
Laztana (Latzen) | LAZTA
Lotuta egon arren (Kokein) | LOTUTA
Loretxoa (EXKIXU) | LORE
Marea Gora (Itoiz) | MAREA
Musturrek sartunde (Gatibu) | MUSTURREK
Nicaragua (Kortatu) | NICA
No time for love(Hertzainak) | NOTIME
Salve (La Polla) | SALVE
Sarri Sarri (Kortatu) | SARRI
Sorginen leizean (Exkixu) | SORGIN
Txatxo (Zarama) | TXATX01
Txus (La Polla) | TXUS

Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | SOROTAN
Bai euskarari (Pantxoa) | BAI1
Bakezaleak (Anje Duhalde) | BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | BIZKAIA
Eperrak (Anje Duhalde) | EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) | EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) | EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Ordorika) | POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) | FURRA
Galiziara noa (Oskorri) | GALIZIARA
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) | GERNIKA1
Haika Mutil (Mikel Laboa) | HAIKA
Izarren hautsa (Xabier Lete) | IZARREN
Lepoan hartu ta (Pantxoa/Peio) | LEPOAN
Marinelaren zai (Sorotan Bele) | MARINE
Nere herriko neskatxa maite (B.Lertxundi) | NERE
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) | NON
Oi! Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) | OIAMA
Tirauki (Oskorri) | TIRA
Txatxamatxalinatxu (Mikel Urdangarin) | TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) | TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordorika) | ZAINDU

LOGOAK (2 sms)
KODEA
ZINEMA
AIZKORAK
GLOBUAK
EGUZKILORE3
NIREKIN
SORGINGA

OHARRAK
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.